

musika
tomas san miguel & ttukunak
mikel egiluz

QEU

2,40 €


2006ko uztaila

163

gaiak
arabako bertsozale elkarte
gasteizko 30. jazaldia
toki eder ikastola

liburua
euskar herria atzerritarren ahotan
bidaiaak
bidaiateka

ixiar rozas idazlea



iruña-veleia >> URDIN ISAR, ZURI URDIN GORI, EDAN IAN LO, IAN TA EDAN,
IAUN, GEURE ATA ZUTAN, JESUS IOSHE ATA TA MIRIAN AMA [4-5. orr.]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK




Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

SUMARIOA163



4



9

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugaste@grn.es | **www.geugasteiz.com** | **zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate | **aldizkari batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** argazki press | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | **maketa:** dalvez | **umorea:** iñigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** kike fdz. de pinedo, patxi zubizarreta, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, pablo ruiz de aretxabaleta eta gamarrako ostalaritza eskola. | **publizitatea:** aldizkari batzordea eta edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:

historiafteuskara 4
iruña-veleiaiko azken aurkikuntzak

iritzia 7
toki eder ikastolaren auzia

kaletik / idazleenzutabea 8
jazzaldia / patxi zubizarreta

geupertsonaia 9
ixiar rozas idazlea

euskaltasunean. gasteiz 12
maider arberas sagasti

orribatean 13
gasteizko 30. jazzaldia

geugaia 15
arabako bertsozale elkarte

batbitan 18
jose felix djaz de testua:
'euskal herria atzerritarren ahotan' liburua

artetxokoa 20
tomas san miguel konpositorea & ttukunak

proposamenak 24
hur & gazte literatura
cd-a&liburua&zinea / txabi arnal

lauhitzetan 25
iruña-veleia

bidaia / errezeta 26
kanariak / mihi-arrain poupieteak

umorea 27
iñigo sarasola

batbitan 28
mikel egiluz bakarlarria


batbitan 30
bidaiateka

zeregin 32
uztaileko agenda

arabaxotzian / historiazutabea 34
cristina fernandez / erlantz urtasun



12



15



18



20



28

IRUÑA-VELEIAko *Iurrikara*

Poza eta emozioa ezin disimulaturik "Belaunaldi batean behin baino ez da ematen hau bezalako aurkikuntzarik" zioen aurkezpen egunean Eliso Gil aztarnategiko arduradunak. Eta ez da gutxiagorako. Nola ez sortu harridura, poza eta lilura honelako berriak. Baina zer da zehatz-mehatz aurkitu dena?



h. knörr, joaquin gorrotxategi eta eliseo gil ekainaren 15eko prentsaurrekoan

[kike fdz. de pinedo]

[arg.: argazki press]

Hiri edo herri indigena. Orain dela 3.000 urte inguru sortua. Erromatarrek iritsi baino 1000-800 urte lehenagokoa. Karistiarren hiriburua zatekeen. Indusketen garapenak datu eta, agian, ustekabe gehiago emango dizkigun arren, badakigu bere hedapena 50 hektarea ingurukoa zela, uste baino dexente handiagoa eta Euskal Herriko handiena. Eta honez gain, hainbat kulturaren eragin sare sakona azaltzen dela bere kokapenak lagunduta (Lautada erdian eta Zadorra ibaiaren ondoan).

Hiri erromatarra. Aurreko hiri eta populazioaren jarraipena izango da. II. mendean lortuko zuen garapenik handiena. Orduan 100 hektarea inguruko zabaleran 5.000-10.000 lagun biziko ziren. Harrigarria benetan. Garai hartan bi Iruñak (Nafarroa eta Arabakoa) izango dira Euskal Herriko hiri nagusiak. Ahaztu gabe, Oiasso portuhiria Irunen. Toponimoak guztiz argigarriak

dira, hiruretan **Irun(a)** -"hiria, edo hiriaren lekua"- agertzen baitzaigu. Kasu honetan bat etorri arkeologia eta toponimia.

Pompeia Valentinako etxeko eskola eta grafitiak. Etxebizitza hau hiriko aberats eta handienetakoa zen bere 1.000 m²-etan, merkataritza eta etxebizitza guneak zituen maila ekonomiko oparora erakutsiz. Hauetako gela batean, *paedagogium*-en, seme-alabek instrukzioa jasotzen zuten. Zorionez une jakin batean teilatua erori eta gela hori zigiturik gelditu zen denboraren kapsula balitz bezala. Harik eta aurreko udan arkeologoek zanpatutakoa biltzen hasi arte. Hasiera batean etxeko zaborra baino ez ziren hainbat hondakin eta zeramika puska ikusi zituzten, baina puska horietako batzuk garbitutakoan harriduraz hizkiak eta marrazkiak zituztela ohartu ziren. Hau da, arbeltxo moduan erabilitako ostrakak ziren, zeramikazkoak zein hezurrezkoak. Taulatxo haietan **eskola munduarekin eta ikasketekin lotutako latinezko oharrak** ikus zitezkeen; alfabetoetatik hasi eta

buruz ikasitako mota guztietako zerrendak (autore klasikoak, jainkoak, pertsonaia historikoak...), *Eneidako* gaiak... Dударik gabe, erudizio eta maila kulturalaren adibide garbiak.

Honekin batera, kristautasunarekin lotutako testuak eta irudiak ikus daitezke, garai hartako gizarte eta ideologia-erlijio giro gatazkatsuen lekuko. Hauetan nabarmentzekoa da kristautasunaren testimonio hauen garai goiztiarra, III. mendea; hain zuzen ere. Gogoratu behar da kristautasuna ez zela legeztatu IV. mendera arte, eta Euskal Herrian kristautasunaren aurreko aztarnak V. mendekoak direla, Buradongo eliza batena, hain juxtu.

Halere, gure mugetatik kanpo oihartzun handiena izan duena **kalbario** baten irudia izan da, orain arte munduan aurkitu den zaharrena.

Eta hau gutxi balitz, **eguneroko bizitza xumea** erakusten diguten beste hainbat grafiti zoragarri: ohiko bizimoduaren

...izugarritzko jauzia euskararen historian.

“

Baina dudarik gabe,
aurkikuntza honek
Baskoiek edo
Akitaniarrek V-X.
mendeen bitartean
gainontzeko herriak
euskaldundu zituztela
dioen historia-korrontea
ahultzen du, eta, aldiz,
bertako herriak
(karistiarrak,
barduliarrak eta
autrigoiak) erromatarrak
iritsi zirenean
euskaldunak zirelako
hipotesia indartu.



marrazkiak letrina publikoa eta guzti, maitasun adierazpena txerri hezur batean, Jainko erromatar baten karikatura den txerri bat gezi bat sartuta,... Garai hartako bizimodu eta kezken leiho irekia. Monumenturik handiena bezain baliotsua.

Historia honi ez zaio ukitu exotikoa falta. Idazkera hieroglifiko klasikoaren adibideren bat ere baitugu, lehen aldiz, mendebaldeko Europako hain iparraldeko inguruan aurkitua. Hau eta Egiptoko faraoi jainko batzuen izenak agertu izanak etxe horretako irakaslea egipziarra zelako hipotesia indartzen du.

EDAN, IAN, LO...

Duela aste batzuk beste etxe batean indusketak egiten ari zirela bigarren multzo epigrafiko bat topatu zuten, kasu honetan etxeoko paretak eta zoru egiteko erabilitako hondakin materialak ziren, adreiluak, beirak, zeramika puskak... Antza denez, hemen idazkiez gain, badira erlijioarekin lotutako marrazkiak, tartean 'azken afaria'. Hauek ez ziren aurrekoak bezain garbi ikusten, baina zur eta lur gelditu ziren Geure ata zutan eta abarrekoak irakurri ahal izan zituztenean. Horrela, duela hilabete inguru J. Gorrotxategi eta H. Knörren esku utzi zituzten idazkunak ikerketa egin dezaten, eta horretan ari zirela filtrazio batek berria aireratu eta euskarazko hitz multzo bat aurreratzeko beharrean izan dira. Hauexek: **URDIN ISAR, ZURI URDIN GORI, EDAN IAN LO, IAN TA EDAN, IAUN, GEURE ATA ZUTAN, IESUS IOSHE ATA TA MIRIAN AMA.**

Baina hauek ez omen dira bakarrak, gehiago daude multzo berean, eta etxe honetan agertu diren bezala, litekeena da gehiago aurkitzea beste domus batzuetan. Oraindik datazioa ikerketa prozesuan egon arren, badirudi etxea V. mendekoa izan daitekeela, eta materialak eta ostruak garai berekoak edo zaharragoak. Edonola ere, gutxienez Donemiliagako esaldiak baino 500 urte zaharragoak. Hortaz, izugarritzko jauzia euskararen historian. Behin-behineko azterketak ezuste bat edo beste eman du dagoeneko. Esaterako, ez zen espero horrelako hitz arkaikoak horren ondo ulertzea gaurko euskararekin, eta ezta "z"-ren agerpena ere (zuri, zutan), agian arau berri baten hasieraren lekuko•

ZER ALDA DEZAKE AURKIKUNTZA HONEK?

Goiz bada ere, lasai esan daiteke Iruñan aurkitutakoak Euskal Herriko historia liburuak aldaraziko dituela. Horrela dextente aurreratu beharko da kristautasunaren agerpena gure lurretan. Baina era berean, galdera berriak ere sortuko dira. Zein izan zen erlijio berriaren onarpena eta ezarpena mende horietan eta beranduago ere? Zergatik iritsi dira gaurdaino mitologiarekin lotutako sinesmen paganoak? Sinesmen arteko sinkretismoa eman al zen?... Orduko maila kulturalaz, ekonomiaz, merkataritzaz, beste herriekiko harremanez, Veleiarren bizimoduaz eta ohiturez galdezka jarrai genezake. Badago zer ikertu eta interpretatu datozen urteetan.

EUSKARARI DAGOKIONEZ ezin ukatu idazkunen garrantzia. Euskara arkaikoa hobeto ezagutzeko aukera paregabea. Euskara, hiritar kultuena ere bazela, eta gainera idatz zitekeela erakutsiz eta bide batez, euskaldun menditar basatien topikoa gaundituz.

Lehen esan dugun bezala datazio zehatza udazkenera arte ez dugu jakingo. Idazkiak III. edo VI. mendekoak diren jakiteak baldintzatuko ditu ondorioak. Baina dudarik gabe, aurkikuntza honek Baskoiek edo Akitaniarrek V-X. mendeen bitartean gainontzeko herriak euskaldundu zituztela dioen historia-korrontea ahultzen du, eta, aldiz, bertako herriak (karistiarrak, barduliarrak eta autrigoiak) erromatarrak iritsi zirenean euskaldunak zirelako hipotesia indartu. Honen alde euskalkien Ipar-hegoko norabidea dugu edota erromatar esteletan agertutako hainbat izen baskoide.


Egunotan batez ere Akitaniakoak aipatu diren arren, badira Nafarroan beste dozena bat inguru, Errioxa-Soriako mugan beste multzo bat (Onse, Onso, Sesenco...), eta Araban Lunbelscottio, Lutbelsar, Helasse, Aituneo, edo Iruña-Veleiako Illuna edo ondoko Olabarriko Attia (azken bi hauek tamalez desagertuak). Izen hauen, eta beste batzuen (Arai, Araica...) berrirakurketa edo berrinterpretazioa egiteko bidea zabal dezake Iruña-Veleiak. Euskal izenekin ari garenez, ezin ahaztu eskualde berean, Añanan, IX eta X. mendeetako kartularioetan Obeco, Argisso, Ahostar, lonti, Amusco, Anderazu, Eita (Aita) edo Ama izenak agertzen zaizkigula.

Eta zer esan patata eta garizko Lautadaren gainean. Ezker-eskuin, Larreako Lazarragaren eskuizkribua (Hegoaldeko lehena eta garaiko euskara aberatsaren isla) eta euskarazko lehen hitzak Tresponde eta Biloda ondoan. Balio sinboliko izugarria ezin uka. Ea Arabari buruzko pertzepzioa aldatzen laguntzen duen, kanpokoei zein bertakoei. Zazpigarren alaba? Utikan topikoak, biba gu!!!



EGUR
Zurezko Teiltuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@eushalnet.net



**Udan ere
bai euskarari**

Udan ere Bai Euskarari! Sartu www.baieuskarari.org
webgunean eta ikusi zeintzuk diren Bai Euskarari
Ziurtagiria duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak,
eta kontuan har itzazu!

Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!




**eusko
alkartasuna**

**Gazte
Abertzaleak**

Euskeraz Araban BAI

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Argazki - Estudioa


Erramun

Heradio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tñoa: 13 71 02 Tñoa: 26 19 91
01006 01004

HEGOALDE
Euskaltea

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tñoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

[pablo ruiz de aretxabaleta]

TOKI EDER IKASTOLA. HEZKUNTZA EZ GAI

Haurrak aldamioren eta obren artean jolastea eta ikastea edo egunero autobusez El Pilar auzora bi (edo lau) bidaia egin behar izatea. Hori da Lakuako Gobernuko Hezkuntza Ordezkaritzak Toki Eder ikastolako ikasleei eskaintzen diena, Ordezkaritzak berak aurreikusi ez duen egoerari irtenbidea bilatzeko. Inprobisazioa eta planifikazio eza izan dira arazo honen arrazoia. Hain zuzen, planifikatzea lan nagusia duen erakundearen akatsak.

Hezkuntzak Toki Eder ikastolan hirugarren lerro bat zabaltzea erabaki du -hau da, maila bakoitzean hiru gela izango dira, gaur egun dauden bien ordeztu-, betiere ikastolako Kontseiluaren edo gurasoen iritzia kontuan hartu gabe. Erabakiak arazoak ekarriko dituen arren, gurasoek onartu egin zuten, auzoan dagoen beharrari aurre egiteko. Baina onartzen ez dutena ikastola hankaz gora jartzea eta obra eremu bihurtzea da.

Agerian dago lanek ekarriko dituzten arazoak: hautsa, zikinkeria, zaratak, kamioien joan-etorriak, makinak, hesiak eta abar. Irakasleek ere aitortu dute zaila izango dela horrelako egoeran beren lana egitea. Eta haurrentzat dagoen arriskua ikastola honetan ondo ezagutzen dute. Duela hiru urte, patioa berritzeko egiten ari ziren obretan haur batek zauriak jasan zituen buruan. Eta bakarrik zen patioa berritzea. Oraingoan eraikin oso bati buruz ari gara. Hezkuntza Ordezkaritzaren arabera, obrak irailean hasiko dira eta urtebete bat iraungo dute. Obren iraupenen epeek, berez, sinesgarritasun gutxi dute, eta are gutxiago Ordezkaritzatik bertatik egindako aurrikuspena. Orain arte izan duen jarrera ikusita, inork gutxi espero baitu epea bete ahal izatea.

AUTOBUSA

Hezkuntza Ordezkaritzak ez du obren arazoa ezbaian jartzen, eta beste aukera bat eskaini dio ikastolari: Obrek irauten duten bitartean 2 eta 5 urte bitarteko haurrak El Pilar auzoan dagoen Pio Baroja ikastetxera autobusez eramatea. Horrela esan zuen Josu Gangoitik ohitura bihurtzen ari den moduan, inprobisatuz. Denbora galtzea, ikastolan dauden ekintzekin lotura galtzea, kasu batzuetan anai-arrebak

ikastolan utzi eta bestea autobusera eraman behar izatea... Berririo familiek ordaindu beharko lukete Gangoitiren lan eskasa eta planifikazio eza.

Inprobisazioa Hezkuntzaren "etxeko marka" bihurtu da. Edo bestela, arazoei "irtenbideak" azken momentuan ematea, sortuko diren protestak ahal den neurrian saihesteko ahalegina. Are okerrago!

Ibaiondo Ikastola adibide garbia dugu. Lakua auzoko demografiaren joeraren berririk ez duen bakarra Gangoiti jauna omen da; antza denez, ezustean harrapatu du bertan gero eta haur gehiago egoteak eta ikastolen toki gehiagoren beharrak. Horregatik, Pio Baroja ere behin-behineko irtenbide moduan erabili zuen Ibaiondo Ikastola eraikitzen zen bitartean. Eta obrak bukatu baino lehen txikia geratu zaio Hezkuntza sailari. Orduan, Ibaiondoko gurasoen protesten aurrean bat-bateko irtenbidea sortu zen berririo. Beste ikastola bat eraikiko da. Berririo azken momentuan, protestak sortzen direnean, agertzen da aspaldian bideratuta egon behar zen irtenbidea. Hala ere, Ibaiondon laugarren lerro bat irekitzea eta Toki Ederren hirugarrena irekitzea erabaki du Hezkuntzak, bieran masifikazio arazoak eta Toki Ederren aipatutako arazo berriak sortuz.

GURASOEN AUKERA

Gurasoek Administrazioak egin behar zuen lana egin dute. Ikastolaren ondoan dagoen orube batean ikastolarako eraikin berri bat egitea proposatu dute. Udalak egun duen kalifikazioa aldatzeko prest azaldu da. Hezkuntzak, berriz, uko egin dio aukera horri.

Hezkuntza sailak, eta bere ordezkari Gangoiti jaunak ez dute beren azterketa gainditu eta hobe dute irailerako hobeki prestatzea. Gurasook suspentso eman diegu eta erantzukizunak eskatzen dizkiegu. Lotsagarria da Administrazioak, antolatzeke arduraduna denak, ez antolatzea. Onartezina da bere axolagabekeria hori haurrek ordaintzea nahi izatea. Eta salagarria ere bada hori guztia hezkuntza publikoan gertatzea•



Lotsagarria da Administrazioak, antolatzeke arduraduna denak, ez antolatzea. Onartezina da bere axolagabekeria hori haurrek ordaintzea nahi izatea. Eta salagarria ere bada hori guztia hezkuntza publikoan gertatzea

[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

JAZZ-A & JAZZALDIA

Gasteizko jazzaldiak 30 urte beteko ditu aurten. Uztailaren 8tik 15era Gasteizko kaleak jazz doinuez jantziko dira, baita musika mota hau maite dutenekin ere. Zaletu asko kanpokoak dira, baina ba al dago Gasteizen benetako jazz zaletasuna ala gizarte ekintza hutsa al da? Kalera atera gara beste behin jazzaldiak hirian duen oihartzuna jasotzeko asmoz.

- 1) Jazz musika gustuko al duzu?
 - 2) Jazzaldira joan ohi zara?
 - 3) Jazzaldiaren egunetan hiriko giroa aldatzen dela uste al duzu?
- Zertan?



Samba Thian, muntatzailea

- 1) Orokorrean esanda, gustuko dut eta zehazki, iaz Gasteizko Jazzaldira etorri zen Diana Krall eta antzekoak atsegin ditut oso.
- 2) Azken 3 urteetan joan naiz jazzaldira, batez ere, Mendizorroztan egiten diren kontzertuetara. Askok gustatzen zait.
- 3) Bai, kaleko giroa aldatzen da. Jende gehiago dago kalean eta nik, adibidez, nire etxean ere nabaritzen dut. Mugimendu asko egon ohi da, senide asko hurbiltzen direlako jazzaldia dela eta.

Iñaki Fdz de Jauregi, topografoa

- 1) Pixka bat, baina ez naiz ez oso zaletua ez oso aditua.
- 2) Iaz joan nintzen eta aurten ere joateko asmoa badut.
- 3) Bai, egun horietan mugimendu gehiago nabaritzen da Gasteizko kaleetan, batez ere, hirigunean eta bertako tabernetan.



Iñigo Durana, bizizalea

- 1) Egia esan, ez naiz oso zalea. Batzuetan entzutea gustuko dut baina bakarrik tarte txikietan, bestela aspergarria suertatzen zait.
- 2) Bai, iaz joan nintzen. Aurten oraindik ez nago oso ziur.
- 3) Bai, gauza asko antolatzen dira hirian jazzaldiarekin batera, kartelak ikusten dira kalean, tabernetan kontzertuak egoten dira, Principal antzokian ere ikuskizunak egoten dira. Bestetik, kaleko giroa oso atsegina izaten da.



IDAZLEENZUTABEA

ESAN GABE DOA

[patxi zubizarreta]




Nahitaez, onartu beharra dago Santa Maria katedrala bihurtu dutela Gasteizko bizitza kulturalaren ardatz: Borys Izaguirre, Arturo Perez-Reverte, Paloma Gomez Borrero, Mercedes Mila, Pablo Coelho... ekarri izan dituzte hitzaldi arranditsuak eskaintzera (tamalez, ez dute oroitu -nahi izan- gurean ere badirela beren nobelak katedral giroan kokatu duten idazleak -Anjel Lertxundi kasu, *Otto Pette-Las últimas sombras* nobelarekin-, edo horretaz tajuz mintza daitezkeen solaskideak).

«Araba bihotzean» izeneko saria ere nori eta Pablo Coelho eskaini berri diote eta telebistan Arabako diputatu Ramon Ravanera hunkiturik ikusi ahal izan genuen, negarra begietan, halako idazle baten alboan egote hutsagatik (tamalez, nik euskal idazle bati baino gehiagori deitu nion ekitaldira joan gintezen, sariaren parafernaliarekin ez bazen, gutxienez Coelhoren alboan halako hunkidurarik sentitzen ote genuen frogatzera; baina inor ez zen animatu eta nik, bakarrik joan baino, bakarrik egon nahiago).

«El loco de la colina» telebista saioan ikusi nuen gero Coelho, katedrallean grabatutako programa batean, eta, egia esatera, ez zitzaidan hain mistiko eta handinahia iruditu -kartzela, droga...-. Eta orain jakin berri dut idazlea Errusia partean dabilela, Transiveriano trenean, eta geltokietara sekulako jendetzak hurbiltzen zaizkiola ongi etorria egitera (tamalez, jakin berri dut, halaber, Gipuzkoan Liburu Gaztea saria Kirmen Uribe eta Fernando Murillori egokitu zaiela, eta ekitaldia aurkezteko Wazemank-eko aktorea bat eraman zutela; eta saioa amaitu da, idazleak joan dira, eta gazteek sekulako ilara sortu dute aktoreak paper puskarik ziztrinena ere sina diezaien).

Esaera arabiar batek dioenez, hitza zilarrezkoa bada, isiltasuna urrezkoa da. Eta fini•


IXIAR ROZAS, idazlea



[arg.: jorge ferreira]

Ixiar Rozas idazle lasartearrak bere hirugarren eleberria luzatzen digu, *Negutegia*, Pamiela argitaletxeak kaleratu duena. Ixiar Lasarte-Orian jaio zen 1972an. Kazetaritzan lizentziaduna da eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gidoilaritza Masterrak ditu. Kazetari eta gidoigile moduan lan egin du zenbait egunkari eta telebistan. Bere lan berriaz eta gaurkotasuneko hainbat gaiz mintzatzeko GEU berarekin izan da.

“Kulturak gizon-emakumeon adierazpena behar luke, gure arima elikatu beharko luke”



[arg.: argazki press]

[maite lekue]

Zure 3. eleberria dugu esku artean, Negutegi izen iradokitzaileaz atera dena gainera. Zer diguzu oraingoa kontatzeko, Ixiar?

Liburu honetako hiru pertsonaia nagusiak, Dede, Omar eta Emi, zentrorik gabe geratu dira, eta marrak egiten dituzte beren geografia pertsonaletan. Zentroa galtzeaz hitz egiten dut, deserrotzeaz, baina nobela korala denez, badira gai eta istorio gehiago. Liburuan deserrotze hori jaioterriak, heriotzak, desamodioak, egungo prekaritateak eta bizi-egoerak bultzatua dago. Eta mugimendura, bilaketa batera, eramaten ditu pertsonaia. Emik eta Dedek Omarren bila abiatzerakoan egiten duten bidaia litzateke liburuaren hari nagusia. Omarrek eskutitz baten bitartez hitzordua jarri die, otsailaren 29an, itsas-herri batean. Han unti

bat izango dute zain. Ez dute informazio gehiagorik.

Memoriari begiratu diot liburuan, azaltzen ditudan uneen erreskate moduko bat proposatzen dut. Denbora eta espazioaren gaineko gogoeta ere badago, biek ala biek gure pertzepzioa baldintzatzen baitute. Bizitza-heriotza binomia ere etengabe azaltzen da, baina liburuak heriotza maila poetiko batera eramateko aukera eman dit. Eta horiekin batera, adiskidetasunaz idatzi nahi izan dut, jatorriaz eta identitateaz haratago sortzen den adiskidetasun horren indar handiaz. Bada, azkenik, Medusaren mito klasikoaren irakurketa moduko bat. Batzuentzat kastrozioaren sinboloa izan dena, besteentzat kapitalismoaren deabruak gorpuzten dituena. Liburuaren atal bat Gorgona uhartean gertatzen da, Medusa hiru gorgonen ahizpa txikia da, hilkorra den bakarra.

Eleberriaren forman fragmentazioaren alde egin duzula esan duzu. Zer esan nahi duzu honekin eta zeren bila zoaz?

Liburu batean, sormen lanetan, bat egin behar dute formak eta edukiak. Lana borobilagoa dela iruditzen zait. Formaren bilaketa sakonean, sakonki egiten denean, beste galdera batekin egiten duzu topo: Zergatik mundua? Zergatik horrelakoa? Bai, fragmentazioan mugitu naiz oraingoa ere, istorioen hari logikoa eta kronologikoa hautsi dut, aurreko bi liburuetan bezala. Nire ustez hori litzateke gaurkoaz hitz egiteko modua, behintzat niri gehien interesatzen zaidana. Eszena eta egoera desberdinen arteko collage moduko bat egiten dut, non garrantzi handiagoa ematen zaion intrainstoriari. Fragmentazioak, bestalde, irekita uzten dio atea irakurleari. Irakurleak osatzen du istorioan esaten ez den guztia,

iradokitzen dena. Eta horrekin batera, fragmentazioak prozesua azpimarratzen du, eta horrela garrantzia kentzen zaio emaitzari, begirada ez doa emaitzara, prozesura doa. Haustura honetan, logikaren eta hausturaren artean geratzen den gune horretan, horrek sortzen duen harridura eta noraez horretatik, sortzen dira, ene ustez galderak.

Genero desberdinetan ibili zara, haur-literatura, antzerkia, narrazioa, poesia... Zein generotan duzu nahiago eta zergatik?

Ezin aukeratu, istorioek aukeratzen naute nolabait. Batzuetan istorio baten hasiera etortzen zait, eta berehala dakit hori antzerki baten irudia dela, edo poema baten esaldia, edo narrazio baten pasarte. Haritik tira, eta gehienetan horrela dela baieztatzen da. Nik kasu handia egiten diot hasierako intuizio horri.

Periferia topaketak Bilbon izan dira aurtengo udaberrian. Zein helburu bilatzen dituzue egitasmo honen bidez?

Laugarren edizioaren lehenengo zatia amaitu dugu, Donostian jarraituko dugu urrian. Hiru urte daramatzagu topaketak Bilbon egiten. Pentsamendua, artea (zentzu zabalean) eta ekintza uztartzen ditugu. Gogoeta gune bat sortzen da topaketetan zehar proposatzen diren hitzaldi, tailer, laborategi eta antzerki ekintzekin, eta horrek esperientzien trukaketa bat ahalbidetzen du. Horrekin batera, leiho moduko bat da; leiho horretatik kanpoan une honetan ematen ari diren hainbat eztabaida sartzten dira, eta hemengoek ere kanpora egin dezakete. Hizkuntza hibridoan laborategi moduko bat sortzen da.

Nola ikusten duzu euskal kulturaren mugimendua garaiotan? Osasunik bala du?

Zer da euskal kultura? Euskaraz egiten dena, hemen egiten dena? Galderak datozkit zurea erantzuterakoan. Mugimendua egon badago, baina kontua ez da mugimendurik ba ote dagoen jakitea. Esango nuke mugimendu handi horretan dagoenari begiratu beharko geniokeela, gogoeta sakon bat. Ze helbururekin egiten diren egun proposamenak, esaterako. Ikusten dena lan baten emaitza izaten da, baina batzuetan

prozesua emaitza bera baino interesgarrigoa izaten da. Eta hemen emaitzari begiratzen diogu gehiago, prozesua, eta prozesu horretan guztian dagoenari erreparatu gabe. Hor sartzten dira, esaterako, helburuak, kontzeptua edo proiektuaren beraren atzean dagoen filosofia. Merkatura begira ari zara lan egiten? Zure ikuskizunak arrakasta izatea da zure helburu nagusia? Hedabideetan ateratzea da zure helburua? Izenburu ederreko kea sortzea? Hori ez da niri interesatzen zaidan kultura, euskaraz eta euskal kulturaren izenean egiten bada ere. Kulturak gizon-emakumeon adierazpena behar luke, gure arima elikatu beharko luke. Zerbait bueltatu behar digu kulturak, gizon-emakume hobeak izan nahi badugu galderak egin behar dizkigu, gure izatearen funtsera doazenak. Gure irudimenaren esparru sinbolikoak zabaltzea interesatzen bazaigu behintzat, eta endogamia hutsean erori nahi ez badugu.

'Ahotsak' Emakume Taldeak, Bakearen Aldeko Emakumeen Ahotsak, bere Adierazpena publiko egiten du, euskal bake prozesuaren ekarpen gisa. Kulturaren munduan ba ote da horrelako mugimendurik?

Erantzuna ez da kultura munduan ba ote dagoen horrelakorik, baizik eta nondik eta zertarako ari zaren lanean. Kultura politika da, izaki politikoak gara jaiotzen garen lehenengo segundutik. Arazoa gehiago litzateke, nire ustez, ze motatako kultura, ze motako politika ari garen bultzatzen. Gauza bat da alderdietatik bultzatzen den politika, nire ustez krisian dagoena, eta beste bat, guztiz desberdina, mugimenduetan edo kultur proposamen batzuetatik bultzatzen ari den eztabaida. Zurrumbilo honetan guztian, iruditzen zait denak garela iritzi emaileak. Eta askotan inpresioa dut kulturaren munduan lanean ari bazara, iritzia eskatzen dizutela han eta hemen, baina balio berdinekoa beharko luke behargin, etxeokandre edo etorkin baten iritziak. Pisu politiko bera izan beharko luke.

Zure ibilbideko hainbat liburu Erein argitaletxearekin atera dituzu, oraingoan berriz, Pamielak argitaratu du Negutegia. Nola dago argitaletxeen panorama?

Industria sendotzea lortu da, izenburu asko argitaratzen da. Baina nire ustez kezkarriena irakurzaletasunaren zifrak dira. Behera egin dute, batez ere, gazteen artean, eta ze kultura sortuko dugu horrela?

Zer bilatzen du Ixiar Rozasek literaturan? Eta bizitzan?


Bietan gauza bera bilatzen dudala esango nuke: esna jarraitzea.

Zer irakurtzen ari zara momentu honetan?

Berrirakurtzen ari naiz: Tarkovsky zinegilearen 'Esculpir en el tiempo' eta Antonio Tabucchi Pessoaeren 'Il libro dell'inquietudine' ederraz egindako argitalpen bat.

Etorkizunerako proiekturik bai?

Epe luzearako proiektuak dira. Une honetan Periferiak topaketekin lotuta dagoen dokumental batean ari naiz lanean•



egilea: oier etxerria

ixiar rozasen erretratua

bibliografia

antzerkia	
gau bakar bat	2004, hiria
haur eta gazte literatura	
yako	2001, erein
yako eta haizea	2002, erein
narrazioa	
korronteak	2001, kutxa
sartu, korrontea dabil	2001, erein
nobela	
edo zu edo ni	2000, erein
negutegia	2006, pamiela
poesia	
patio bat bi itsasoen artean	2001, arabako foru aldundia

Maidar 20 urteko gazte gasteiztarra dugu. Ingenieritza teknikoa bukatzeaz dago; horrez gain, emakumeentzako muby gimnasioan spinning eskolak ematen ditu, bai eta umeei klaseak eman ere. Neska alaia eta umoretsua, sarri barre egin edo irribarrea agertzen duena, eta berak esan bezala, "oso urduria, geldirik ezin egona" (...lerrook idatzi dituenak egia dela ziurtatu diezazueke...).

"Jende baten gehiegikeria, handinahikeria eta bereikokeriak ateratzen nau nire onetik"

[estitxu breñas glz. de zarate]

[arg.: edorta sanz]

Duzun biziorik handiena?

Lagunekin irtetea eta kirola egitea.

Bertuterik? Langilea naizela, zerbait lortu nahi dudanean jarraitzen dut helburua eskuratu arte.

Akatsik? Burutik pasatzen zaidan guztia esatea, honek batzuetan arazoak baitakartza.

Zer baloratzen duzu gehien zuregan? Momentu txarretan aurrera jarraitzeko prest egotea eta gauzei alde ona ateratzea.

Eta gainontzekoengan?

Eskuzabalasuna eta laguntzeko prest egotea.

Zure gorputzaren atalik politena? Nire gorputzaren atalekin ez daukat lehenasunik, baina aukeratzekotan eskuak aukeratuko nituzke.

Fisikoki zerk erakartzen zaitu gehien gainontzekoengan? Batez ere aurpegia eta gorputza orokorrean. Mutil batengan adibidez, horiek lirarteke lehenasunezko atalak.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Nire helburuak lortzea eta osasuna nire senideentzat.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Jende baten gehiegikeria, handinahikeria, bereikokeriak.

Geu elkartearen eta aldizkariaren berririk? Noiztik? Esti, aldizkari honen zuzendaria, klaseak ematen ditudan gimnasia doa. Bertan proposatu zidan elkarriketa hau egitea, beraz, une horretan izan zen aldizkari honi buruz entzun

nuen lehen aldia.

Harpidedunak behar ditugu... (20 euro dira urte osoan...):

Honelako aldizkariak egotea beharrezkoa da, gure hizkuntza eta kultura mantendu beharra baitago.

Egunkari bat? Gara.

Telebista saio bat? Oso gutxi ikusten dut telebista, bakarrik filmak eta 'OC' saila.

Beldurrik? Beldur asko ditut baina gehien beldurtzen nauena, dudarik gabe, heriotza da.

Oporrak non eta zertarako? Hondartzan (Cadizen eta Alacanten). Lagunekin joateko, ardurak alde batera utzi eta ahal dugun

hoberen pasatzeko.

Eta nora ez zinateke joango?

Udan, hotza egiten duen leku batera.

Eguna ala gaua? Gaua.

Gasteizko gaua, non? Gasteizko gauan ez daude aukera asko eta irteten naizenean alde zaharrera eta ertialdera joaten naiz beti.

Eguna, non? Eguraldi ona egiten duenean Armentiarra edo igerilekura joatea da gogokoen dudana.

Liburu bat? La sombra del viento.

Film bat? Y tu mamá también.

Edari bat? Kubata bat bere osagaiak hurrengoak izanik: Pontxea, lima eta koka-kola.

Janari bat? Patata tortilla.

Kolore bat? Urdina.

Musika talde bat edo musikari bat? Despistaos musika taldea.

Kirol bat? Bizikletaz ibiltzea, eta surfa, ikusteko.

Zer da Gasteizek duen onena?, eta txarrena? Leku guztietara oinez joan zaitezkeela, beraz, ez duzu denborarik galtzen; eta txarrena, txikia denez txutxu-mutxu guztiez jabetzen zarela.

Euskaraz bizi al daiteke gasteizen?

Oso zaila da hiri honetan euskaraz bizitzea, euskaraz dakitenek ez dutelako hizkuntza erabiltzen eta ez dakitenek ez dutelako ikasten.


Amets bat? Baliagarria izatea nire eginbeharretan eta besteentzat.

Amesgaizto bat? Nire lagun edo senideei ezbeharren bat gertatzea.

Asteburuetarako plana?, eta astean zeharrekoa? Asteburuetan ikasi behar ez badut herrira joan ohi naiz. Eta astean zehar ikusi ez ditudan lagunekin egoten naiz, unibertsitatera joan, klasekoekin egon, gimnasioan egon...

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna.

Zer eskatzen du herriak? Bakean bizitzea, istilurik gabe eta gure herrian dauden arazoak konpontzea, gauzak konpondu behar diren bezala, egoerari onura atera gabe (politikariei erreferentzia egiten ari naiz)•



- ✓ berak dio batzuetan oso umea ere badela, baita ezbaikoa ere
- ✓ olabide ikastolan ikasi zuen euskara
- ✓ bere zaletasunak: kirola egitea, lagunekin egotea eta mendira joatea

JAZZ

gasteizko 30. jazzaldia uztailak 8-15

>VII. jazz mintegia
 new yorkeko juilliard school
 jesús guridi musika kontserbatorioan
 new yorkeko juilliard schoolekin
 uztailak 11- 15 / 5 euro

>hasiera gala
 uztailak 8, larunbata, 20:00etan
 teatro principal antzokian
 brad mehldau trio (18/21/25 euro)

>new orleans picnic
 uztailak 9, igandea, 18:30ean
 armentiako zelaietan
 dukes of dixieland / dr. michael white quartet / the spirit of new orleans all star jazz band (doan)

florida ibilbidea, 3 - 2.a d
 jazzvitoria@jazzvitoria.com
 945 14 19 19- fx: 945 13 02 87
 uztailaren 16ra arte: amarika plaza, 4

sarrerak (bulegoan & online)
 >mendizorrotza (uztailak 11-15): zenbatutako abonua berezia: 145 euro / abonua: 100 euro
 >principal antzokia-abonua (uztailak 10-15): 55 euro
 www.jazzvitoria.com

>mendizorrotza

>>uztailak 10, astelehena, 21:00etan
 gau elektronikoa: incognito / medeski martin & wood (20 euro)

>>uztailak 11, asteartea, 21:00etan
 delfeayo marsalis / paco de lucía (35 euro)

>>uztailak 12, asteazkena, 21:00etan
 ron carter-mulgrew miller-rusell malone / wynton marsalis & lincoln center jazz orchestra (25 euro)

>>uztailak 13, osteguna, 21:00etan
 verge gaua: kenny barron trio / sergio mendes (25 euro)

>>uztailak 14, ostirala, 21:00etan
 enrique morente / michel camilo & tomatito (25 euro)

>>uztailak 15, larunbata, 21:00etan
 sonny rollins (europan uztailean emango duen kontzertu bakarrean) (35 euro)



>principal antzokia

>>uztailak 10, astelehena, 18:00etan
 javier vercher sexteto (15 euro)

>>uztailak 11, asteartea, 18:00etan
 lizz wright (15 euro)

>>uztailak 12, asteazkena, 18:00etan
 the bad plus (15 euro)

>>uztailak 13, osteguna, 18:00etan
 mina agossi (15 euro)

>>uztailak 14, ostirala, 18:00etan
 the kenny garrett quartet (15 euro)

>>uztailak 15, larunbata, 18:00etan
 mintegiaren amaiera-kontzertua
 new yorkeko juilliard school



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA** HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoa!

www.sartuenda.com

Kutilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA

TABERNA

Eguzkitan, astalarenetik ostaldera

**JANTOKI
BEGETARIANOA**

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 • GASTEIZ
TEL • 945 27 62 33

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
- Helduentzat • Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisan

Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

EYSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confeciones Pinedo

JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa: 945 23 39 90

Heldu da eguzkia...



Eguzkitarako edozein betaurreko
erosten duzula ere, Mendia Optikak

erloju zoragarri hau

OPARITUKO DIZU

Eta orain eguzkitako
betaurreko graduatuak **65€**etatik

CHANEL PRADA Ray-Ban amette Silhouette
Calvin Klein FENDI VOGUE Pope Jeans bonardi

Promozio hau 06/05/01etik 06/08/31ra egongo da indarrean, edo erlojuak bukatu arte.

**150 URTE
BETE DITUGU
1856-2006**
ikus dezazun

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Arabako bertsozale elkarteak

Orain dela ia 15 urte sortu zeneko helburu berberak mantentzen ditu Arabako Bertsozale elkarteak, gure herrialdean bertsolaritza tradizio bilakatzea.

Denboraren poderioz, aurrerapenak eman dira, halarik ere, oraindik asko egiteko dagoela dio elkarteak. Eta horretan dago.

[saioa fdz. de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

Arabako bertsozale elkartearen egungo erronka nagusia. Hau da, "gure herrialdeko jaietan eta egitarau kulturetan bertso saioak ohiko bihurtzea, haur eta gazteek futboleko edo musikan izena ematen duten bezala, bertso eskolan ere apuntatzea, jendeak bertso bazkari eta afariak ezagutzeko...", diosku Naroa Sasieta Arabako Bertsozale elkartearen kidea. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen proiektuaren partaide den elkarteak 1993 urtean eratu zen, halarik ere, 1982 urtean jada Gasteizko eta Aiarako Bertso Eskolak sortu ziren. Sorrera garaian bertsogintzaren transmisioa belaunaldiz belaunaldi ziurtatzea eta bertsolaritza ezagutzera ematea ziren zehaztutako helburu nagusiak, egun oraindik ere mantentzen diren jomugak, alegia.

Denbora asko igaro da geroztik, izan ere, Naroa aitortu bezala xedea nolabait bete dela esan daiteke: "Elkarteak ezagunagoa badela uste dut. Jende dezente, eta oso desberdinak, jotzen du elkartera; ikastaro bat edo bertso saio bat antolatu nahi dutelako, bertso eskolei buruzko informazio eske..."

NI ERE BERTSOLARI

Arabako Bertsozale elkartearen lana lau ataletan banatuta dago. Lehenik eta behin, transmisioa deritzan saila dago, belaunaldi gazteen artean bertsolaritza zabaltzea helburu duena. Horretarako, besteak beste, 'Ni ere bertsolari' programa garatzen du, Arabako ikastetxeetan eskola orduetan bertsolaritza lantzen duen proiektua, alegia. Bertan, Amurrio, Audio, Izarra, Legutio, Kanpezu, Agurain, Araia, Gasteiz eta Aramaioko eskoletako lehen hezkuntzako 4. maila eta DBHko 1. maila bitarteko 700 ikasle baino gehiagok parte hartzen dute. Irakasleek ere elkartearen laguntza jasotzen dute, formazioa zein materiala eskaintzen baitute. Nahi izanez gero, elkarteak ere irakaslea jar dezake.

Bestalde, aski ezagunak diren Bertso Eskola eta eskolaz kanpoko ikastaroak bultzatzen ditu elkarteak Arabako herri nagusietan, hala nola, Gasteiz,



Aramaio, Legutio, Agurain eta Laudion. "Dena den, bertso eskolak ez dira unerik gozoena bizitzen ari. Araban ez dago ohiturarik bertso eskolara joateko eta hasiera batean kosta egiten zaio jendeari izena ematea. Behin hasiz gero, atzean mundu bat dagoela ohartzen dira: topaketak, festak, desafioak...", diosku Naroa.

Elkartearen atalekin jarraiki, hedapen batzordea dugu bertso saio, txapelketa, sariketa, gai jartzailak, epailak eta horretaz arduratzen den saila. Ikerkuntza atala, aldiz, dokumentazio biltzaile eta ikerketaren sustapenerako taldea da. Honen zeregin nagusia dokumentazio lana izango litzateke, hau da, bertsolaritzarekin zerikusia duen edozein dokumentu biltzeaz arduratzen da, adibidez, bertso saioen grabaketak, material grafikoa edo bertsolarien datu-baseak.

Azkenik, komunikazio taldeak aurreko batzordeen lana zabaltzen eta transmititzen ditu gizartera.

Arabako bertsolaritzaren egungo egoeraren inguruan Naroa baikor agertzen da, bere ustetan, orokorrean "une gozo batean" dagoelako. Halere, esan bezala, "oraindik ere asko egin daiteke eta asko dago egiteko gure herrialdean". Hori dela eta, Arabako Bertsozale elkarteak lanean jarraituko duela argi asko utzi du, besteak beste, azken urteetan atera diren proiektuei indarra emanez, esaterako, Ni ere bertsolari, Eskolarteko Txapelketa, Gazteen Topaketak edo Errebantxa saria. >>

ZIGOR ENBEITA, Arabako bertsolari txapelketako irabazlea

“Badator belaunaldi oso ona gure atzetik”

Zigor Enbeitak aurtengo Arabako bertsolari txapelketako txapela jantzi du berriro ere, 2003 urtean azken aldiz irabazi ostean. Horrela, jada halako zortzi txapela eskuratu dituen Asier Otamendi bertsolaria garaitu egin du Izarrakoak, Arabako bertsolaritza sasoiari dagoela erakutsiz.

Lehenik eta behin, zorionak...

Eskerrik asko...

Bigarren aldiz, lehena 2003an, Arabako bertsolari txapelketako txapela eskuratu duzu. Nola sentitu zinen zure izena entzutean?

Gauza bi sentitu nituen. Batetik poza, irabaztea ikaragarria da eta. Baina, bestetik, pena sentitu nuen. Oihane Perea jada azken 10 txapelketetan bigarren postuan geratu da beti eta oraindik ez du lortu txapelik, eta nik uste dut merezi duela.

Nola ikusi zenuen zure burua txapelketan?

Batez ere nire buruarekin konfiantza handia neukan, hortaz, oso gustura aritu nintzen eta aspaldian ez bezala disfrutatu nuen bertsotan eta hori igartzen dela uste dut.

Otamendi azken urteetako irabazle garaitezina izan da. Nolanahi ere, Arabako bertsolaritzarentzat mesedegarria da txapela buruz aldatzea, ezta?

Bai, txapela buruz aldatzea ona da. Horrek esan nahi du maila ez dagoela bakarrik bertsolari batengan, baizik eta bertsolari gehiagorengan. Agian, nik edo Otamendik bainoago, beste batek irabazi balu ere hobeoa zen Arabako Bertsolaritzarentzat; gazte batek adibidez, Iñaki Viñaspre edo Izar Mendiguren batek irabaztea, esaterako. Horrek esan nahi du atzetik ere badatozela.

Zure lehiakideen artean, zein zen zure faborittoa?

Faborito asko daude... beti Otamendi jarri behar da hor, bera delako txapelduna. Hala ere, Iñaki Viñaspre eta Oihane Perea ere aipatu behar ditut. Iñakirekin entrenatu dut eta ikusi dut oso ondo doala eta egun ona izanez gero, aukerak bazituela. Pena zortziko nagusian ez zuela asmatu, bestela...

Eta Oihane, aldiz, beti dago hor. Tamalez txapela beti ihes egin dio azken txanpan. Manexi dagokionez, uste

dut nabaritu zaiola Granadan egon dela urtebete eta Juaristik, berriz, iaz baino final hobeoa egin zuela.

Egokiak iruditu zitzaizkizun txapelketan jorratu zenituzten gaiak?

Nik uste dut finala hain ona izatearen erru handia gaiek daukatela. Gaiekin asmatu zuten bete-betean. Iaz kritikaxo bat egin genuen, ia-ia gai guztiak batekoak zirela izan zen, hau da, ez zegoela borrokarik. Baina aurtengoa guztietako gaiak jarri dituzte eta asmatu dute. Oso onak izan dira eta gai-jartzaileek oso lan ona egin dute eta hori igarri da.

Zure kasuan, ze bertsorekin geratu zinen erosoan?

Kartzelakoekin, bai Oihanarekin egin nuenean ofiziokoa zein bakarka egitean. Baliteke bertsokak Egañak egiten dituen modukoak ez izatea, hala ere, jendea hunkitu egin nuen eta hori polita da. Horrez gain, azken agurra ere asko gustatu zitzaidan. Bihotz-bihotzetik atera zitzaidan, sentitzen nuena bota behar nuen eta gustura egon nintzen.

Nolako izan zen txapelketako giroa?

Beste urteetan
b a i n o

jende gutxiago egon zen baina hurbildu zen jendea oso gogotsu etorri zen, txaloak emateko eta animatzeko gogoarekin eta beraz, giroa oso polita izan zen.

Arabako bertsolari txapelketako finaletan beti aurpegi berdina ikusi ohi dira. Zeren seinale da hori eta nola ikusten duzu zuk bertsogintza Araban?

Egia da beti aurpegi berdina ikusten direla, halarik ere, azken urteetan gazte berriak agertzen ari dira. Aurtengoa, esaterako, ikusi da gazteak badatozela, horren adierazle Izar Mendiguren dugu, 17 urterekin bakarrik. Hala ere, zorte txarra izan zuen eta gaixorik joan zen txapelketara.

Badirudi beti bertsolari berdina garelako, dena den, badator belaunaldi oso ona gure atzetik.



Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxo: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

LA RIOJANA
jaketxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko
arteoa) Tfnoa: 945 25 03 52

HELADOS
Nestlé

bar • restaurante
albéniz

Errege otea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA, 'Euskal Herria atzerritarren ahotan'

“Euskal Herriari buruz asko”

Estrabon, Miguel de Cervantes, Lope de Vega, Shakespeare, Victor Hugo, Ernest Hemingway, Markos komandateordea... Pertsonaia ezagunak izateaz gain, bada horiek guztiak batzen dituen zerbait: denek Euskal Herriaz hitz egin dute, eta ongi hitz egin gainera. Horiek eta beste hainbat pertsonaia ospetsuek gure herriari buruz esandako laudorioak bildu ditu Jose Felix Diaz de Tuestak (Gasteiz, 1963) Euskal Herria atzerritarren ahotan liburuan.

AIPUAK

Orson Welles (1915-1985): “Ez frantziar ez espainiar, euskaldunak euskaldun dira”. (Around de world filma)

William Shakespeare (1564-1616): “Nafarroa miragarri izango da munduarentzat” (Trabajo de amor perdido)

Markos komandanteordea: “Ez herri honetako anai-arrebei agur esateko euskarazko zerbaiten bila hasi nintzen, eta ez nuen gauza handirik topatu, baina ez dakit nire hiztegia oso ondo dagoen zeren eta dignidad euskaraz nola esaten den bilatzen hasi eta hiztegi zapatistan zera jartzen baitu: Euskal Herria” (La Jornada, 2000-11-25)



[edurne begiristain]

[arg.: edorta sanz]

Nola otu zitzaizun liburua egiteko ideia?

Liburuaren hasiera Aznarren garaia da, bigarren legealdia. Bera Espainiako gobernuburu zela, legealdi hasieratik kanpaina bat abiatu zuen Euskal Herriaren aurkako irainak eta gezurrak esanez. Nik halako etsipen bat sentitu nuen, ez nekielako nola erantzun horri. Baneukan susmoa historian zehar nahiko iritzi ona izan dela Euskal Herriari buruz munduan. Ordurako baneuzkan bilduta aipu batzuk, topikoak, eta hasi nintzen gehiago biltzen. Une batean ikusi nuen bilduma hau oso polita zela eta pena zela gordetzea, eta uztailean bertan liburua prestatzen hasi nintzen.

Nolakoa izan da bilaketa lana? Zein informazio iturri erabili dituzu?

Gehienbat artxibo lana izan da. Informazio gehiena Antso Jakituna Fundazioan bildu dut, bertan Euskal Herriari buruzko artxibo handia baitago. Koldo Mitxelena Kulturunean ere ibili naiz, hainbat liburu berri ere erosi ditut, eta informazio apur bat interneten bidez lortu dut. Ohartu egin naiz bildutako testu gehienak XIX-XX. mendekoak direla. Konturatu naiz antzinaroko testu gutxi dagoela Euskal Herriari buruz. VII-XIV. mende bitartean ere ez dago asko; badaude Euskal Herriari buruzko aipu txar batzuk, baina normala da, oro har garai horiek ilunak zirelako eta herriak elkarren kontra zeudelako. Gero XIV. mendetik aurrera informazio gehiago agertzen hasten da, eta hortik aurrera oso gauza politik daude.

Euskaldunei buruzko lehen aipuak zein mendetan agertu ziren aurrenekoz?

Nik jasotako lehena Estrabon geografo grekoarena da, kristo aurreko I. mendekoa, Julio Cesarren garaikoa. Bera ez zen egon Euskal Herrian, baina oso lan ona egin zuen: bere garaiko materialak, beste autore batzuenak, zabaldu egin zituen, eta beste batzuen lanetan oinarrituta berea propioa egin zuen. Duen informazioa oso inportantea da, elikaduraz, janzkeraz, musikaz, dantzaz, borroka egiteko moduez... hitz egiten baitu, informazio desberdina ematen du, eta informazio hori gero

liburuaren egilea:

eta ongi hitz egin da”



errepikatzen da XIV. eta XV. mendeetan.

Garai desberdinetako aipuak bildu dituzu liburuan. Ba al dago historian zehar euskaldunei edota Euskal Herriari buruz errepikatzen den ezaugarririk?

Bai. Batetik, euskaldunaren leialtasuna askok errepikatzen dute. Askotan errepikatzen den beste ezaugarri bat harrotasuna da, zentzu positiboan, herri moduan eta pertsona moduan. Bestetik, duintasuna ere askotan aipatzen da, batez ere XVI-XIX. mende bitartean.

Zergatik uste duzu historian zehar Euskal Herriari buruz hitz egin dela? Zer dela eta egon gara besteen ahotan?

Lehen arrazoia da Euskal Herria pasabidea izan delako beti. Beti pentsatu izan dugu isolatuta bizi izan garela munduan, baina hori ez da egia. Iberiara pasatu diren herri guztiak beti hemendik pasatu dira, zeltak, erromatarak, bisigodoak, godoak, arabiarak... Kontua da askok ezagutu gaituztela eurak etorri direnean, XI-XII. mendetik aurrera. Asko ere gerretan. Gerra asko egon dira, eta Euskal Herriak, zuzenean edo zeharka, parte hartu du. Jende asko ibili zen hemendik, eta horiek denek idatzi dute gutaz; gehienek, gainera, oso ongi.

Gaur egun ere Euskal Herriari buruz asko hitz egiten da. Laudorioak bainoago, kritikak dira nagusi orain.

Nik uste dut badagoela arau unibertsal bat: herri

batek bere auzokoarekin beti izaten dituela problemak. Hortaz, herri horien arteko kritika asko negatiboak izaten dira. Euskal Herriaren kasuan, azken 40 urteotan Espainiatik kritika txarrak jasotzea normala da, gatazka bat dugulako. Hala ere, aurrekoan Financial Times aldizkarian hemengo ekonomiari buruzko informazio bat agertzen zen, oso kritika ona eginez. Hori adibide bakar bat da ikusteko Euskal Herriari buruzko informazio onak asko direla. Gehienetan ez dira zabaltzen, edo oso zirkulu txikietan baino ez dira ateratzen, baina egon badaude.

Irakasgairik erakutsi nahi al diozu irakurleari liburu honekin ala irakurleak berak bere ondorioak atera beharko ditu?

Jendeak akaso pentsatuko du liburu hau dela adituentzako gauza bat, historiari buruz asko dakienarentzat... eta ez da horrela. Liburua arina da, eta espresuki historiari buruz ezer ez dakitenentzat eginda dago. Eta liburu hau irakur daiteke historiari buruz ezer jakin gabe. Anekdotak mordo bat jasotzen ditut, azken batean, anekdotario bilduma handi bat da, ez da antologia bat, ez dago nire komentario bat ere aipuei buruz. Autore bakoitzari buruzko biografia txiki bat ere agertzen da. Dibulgazio lan bat da, Euskal Herriari buruz esan den gauza on guztietatik bilduma txiki bat, jendeak jakin dezan asko hitz egin dela Euskal Herriari buruz eta ongi hitz egin dela.



Nafarroa miragarri



Euskal Herria atzerritarren ahotan



LIBURU FITXA

Izenburua: **Euskal Herria atzerritarren ahotan**

Egilea: **Jose Felix Diaz de Tuesta**

Argitaratzailea: **Arrasate Argitan Kultur Elkarte**

Orrialde kopurua: **243 orrialde**

TOMAS SAN MIGUEL konpositorea

Urte eta erdi elkarrekin jotzen besterik ez daramaten arren, Tomas San Miguel eta Ttukunak eszenatokira igo eta urtetan musikarien arteko esperientziak sortzen duen sintonia berezia lortzeko eta islatzeko gai dira hiru gasteiztarrak. Tomasek berak, Maika eta Sara ahizpa bikiek eta Marlon Klein perkusiojole alemaniarrek, Euskal Herriko ohiko musika tresnak elektronikaren soinu garaikideekin uztartu eta 'Dan-Txa' diskoa abiatu dute. Tomas San Miguelen Txalaparta egitasmoaren azkenengo lana da hau.

[josune velez de mendizabal]

TOMAS SAN MIGUELEN IBILBIDEA

Bere ibilbide musikal luzeak eman dion esperientzia eta jakituria erabiltzen ditu Tomas San Miguel gasteiztarrak bere musikaz ikerkuntza propio eta berritzailea egiteko. "Nire indibidualtasunetik, sortzaile naizen neurrian eta musika amaigabea den heinean, ahal dudana egiten saiatzen naiz -azaldu du musikagileak-. Hau da, ezaugarri euskaldunak eta, aldi berean, unibertsalak direnen uztarketan aritzen naiz". Bide horretan sortu du duela 15 urte hasi zuen Txalaparta egitasmoaren lan berriena, 'Dan-Txa'. Aurretik 'Lezao' eta 'Ten' izan ziren.

Aita izan zuen Tomas San Miguelek erreferentzia musikal gertuena eta horregatik hain zuzen ere berari nahi izan dio eskaini bere azken lan hau. 'Dan-Txa'n akordeoia berreskuratu nahi izan dut, orain arte bigarren maila batean utzita nuen eta', aitortu du musikariak. Bere gaztetako oroitzapenek eragin zuzena dute konposatzeko orduan; bere abestien doinuak eta izenak berak ere aditu besterik ez dago eta, Zaldibartxo, Ezpata-dantza soinua, Lezao baserria...

Lezao baserrian bertan (Araban) sortu baitzitzaion Tomasi txalaparta antzinako euskal musika tresnarekin lan egiteko grina. "Anaia bertan bizi zen eta egun batean hara joan nintzela Perdi eta Ruben

txalaparta jotzen ari ziren -ekarri du gogora-. Txalaparta ezagutzen nuen baina ordura arteko adina arreta ez nion jarria sekulan. Bikote honek Gerlabeti izeneko taldea zuten. Beraiei, zein beste gutxi batzuei esker, Frankismoan txalapartak bizirik iraun zuen. Harrigarria zen nolako indarra zuen euren musikak! Zerbait batera egitea eta jarraian elkarri ulertu genion. Beraiei esker sartu nintzen Txalaparta proiektuan. Ondoren, Javier Pasariño saxo-jotzailea sartu zen gurekin taldean. Naturarekin izandako esperientzia horretaz sortu zen 'Lezao' diskoa".

'Ten' diskoak 'Lezao'ren bide beretik egin zuen baina oraingo honetan Gerlabeti taldearen banaketaren ondorioz, Tomasek Perdik (Fernando Auzmendi) eta Ibon Otxoak osatu 'Huts-hotz' taldearekin grabatu zuen. Azken honetarako, ordea, Maika eta Sara bikiekin aritu da, 'Ttukunak', alegia. Tomasek nabarmendu duenez, "Ttukunak Fernando Auzmendiren ikasle baten ikasleak ziren". Ttukunen esanetan, "Gasteizko Folklore Eskola martxan jarri zenean bertan hasi ginen txalaparta ikasten. Han ezagutu genituen gure maistrak, Alizia eta Maria (Kennibel). Haiekin dena erraza!"

'Dan-Txa' diskoan Ttukunak San Miguel-ekin aritzen dira. "Duela bost urte profesional moduan jotzen dugu. Mundu osoan egon gara jotzen, Estatu espainolean, Europan, Brasilen, Amerikako Estatu Batuetan..., eta gure proiektuak egia bihurtu ditugu", diote Sarak eta Maikak. Marlon Klein perkusiojole

eta ekoizle alemaniarrek laukotea osatzen du. "Berak alderik garaikideena gehitzen dio taldeari -dio San Miguelek-. Bi mundu hauen artean mugitzea gustuko dut, hau



& 'TTUKUNAK' txalapartariak

tomas san miguel ezagutuz

da, alde futuristan eta antzinako aldean. Nire musikak bietatik edaten baitu".

Disko bakoitzak lau urteko lana eskatzen dio Tomasi. Hala ere, geroko emaitza ikusita denbora hori ematea merezi duelakoan gaude. Cannesen egiten den Midem jaialdian jo du gasteiztarrak aurten eta bere jaioterrira ere aspaldiko partez hurbildu zen iragan maiatzean (Geu Elkartearen proposamenez). Orain Alemanian dozena erdi kontzertu eskainiko ditu, eta ondoren Womex-era, Sevillan izango den munduko musikaren jaialdira joango dira gonbidatu.

Akordeoilaria, pianojolea, konpositorea, musikaria... "Soinuen margolaritzat dut nire burua, hori da egiten dudana... musikarekin margotzea gustatzen zait eta", dio Tomas San Miguel 'Dan-Txa' diskoko sortzaileak. Gasteizen jaio baina oso gazte zela bere musika ikasketak gauzatzera Madrilera joan zen, gaur egun bizi den tokira, hain justu. Hala ere, San Miguelen ibilbide profesionala hantxe hasi besterik ez zen egin. Ostera, Amerikako Estatu Batuetara bidaiatu eta orduan berritzailea zen jazz musikan murgildu zen. Egun edan duen esperientzia luzea eta oparoari esker bere ezaugarri propioa duen musika sortzen du Tomas San Miguelek.

Euskal Herriko antzinako doinuak eta erritmo latinoak eta elektronikoak uztartuz.

Zure aita musikaria izanik zure lanbidea aukeratzeko orduan eragina izango zuelakoan nago... Horrela izan al zen?


Noski, nire aita izan zen guretzat musikarekin izan genuen lehen harremana. Berak akordeoia jotzen zuen Zaldibartxoko lagunartean. Beti zebilen akordeoiarekin gora eta behera eta berak sartu ninduen musika munduan.

Eskolatik atera eta parean zegoen akademiara solfeo ikastera apuntatu gintuen aitak anaia eta biok. Nire anaia utzi egin zuen, baina nik aurrera jarraitu nuen pianoa eta akordeoiarekin eta hor hasi zen dena.

Eta ostera Madrilera joan zinen musika ikasketak egitera, ezta?

Ikasketak jarraitzeko asmoarekin joan nintzen Madrilera bai, 16 urte nituelarik. Baina Filologia eta Letrak ikasteko asmoarekin joan nintzen hara. Nik arkeologoa izan nahi nuen eta horrela joan ziren gauzak (barre egiten du)..., azkenean musikaren arkeologo bilakatu nintzen. Izan ere, unibertsitateak huts egin zidan. Pintura ikasten hasi nintzen eta azken hau ere utzi nuen betiere musikaren mesedetan.

Jorge Pardo saxojolea ezagutu zenuen bertan. Zer-nolako harremana zenuten? >>



Lehenik eta behin Clara Capote, nire piano irakaslea izango zena, ezagutu nuen. Akademia horretan hezitu egin nintzen eta bertan ere topo egin nuen Jorge Pardorekin. Akademia, musikari zegokionez, oso leku irekia zen eta garai hartan Estatu espainolean apenas ezagutzen zen jazz musika ikasten genuen. Jorge eta biok gure gelako adoresuenak ginen. Jazza izugarri gustatzen zitzaigun eta gure eskuetan erortzen zen edozer ikasi eta ondoren gure gelakideei irakasten genien. Besteen artean guk genekiena zabaltzea gustatzen zitzaigun.

Hortaz, jazza gustuko zenuen?

Txikitatik gustatzen zitzaidan piano aurrean eseri eta edozer kanta inprobisatzea. Klasikoak errepikatzea ere gustuko nuen, baina ez inprobisatzea bezainbeste. Horregatik, irraturan entzuten nituen kantak jotzen nituen, erraztasuna nuen horretarako, Beatlesenak batez ere atsegin nituen. Jazzak musika bat-batean jotzeko aukera ematen dizun heinean izugarri gustatzen zitzaidan. Hala ere, garai hartan Estatu espainolean jazz musikari zegokionez ezer gutxi zegoen, lagunak batek edo bestek zeukan libururen bat edo, besterik ez, eta horrela zenean diskoa erabat akastunik uzten genuen...

Jazzaren sehaskara, Amerikako Estatu Batuetara alde egitea erabaki zenuen orduan 1978an, kontatu...

Bai, horrela izan zen. Bertan aktibitate gutxi zegoelarik 1978an Estatu Batuetara joatea erabaki nuen eta han sei urtez bizi izan nintzen. Bostonen izan nintzen, baita San Frantziskon ere. Talde desberdinetan jotzen eta aldi berean, zenbait ekoizpenetarako musika egiten. Hor bilakatu nintzen konpositore; geroztik, 1984an, Madrilerara itzuli nintzen.

Behin Madrilerara itzuli zinela, jazza jorratzen jarraitu al zenuen?

Estatu Batuetara ideia batekin joan nintzen eta bueltatu, ordea, beste batekin. Han jazzaren iturritik nahas zitezkeen erritmo desberdin asko ezagutu nituen, musika brasildarra, latindarra, flamenkoa... eta orduan burua gauzaz beterik bueltatu nintzen, zerbait berria egiteko gogoaz, hau da, gure herriko musika (hala nola, ezpata-dantza doinuak) jazzarekin nahastea. Hortxe sortu zen Tomas San Miguel Band, Gerardo Nuñez eta Pere Pereira musikariekin batera, besteak beste. 'Esta noche' deitu zen lehen disko hura, 50 kopia saldu genituen orduan. Beno... diskoa ere ez zen, garai horietan LPak

baitziren (barre egiten du). Gutxi saldu arren, Europatik jaialdi askotan jotzeko aukera eman zigun. Hori eta gero urte dezente ibili nintzen telebistarako eta publizitaterako musika grabatzen. Gero 'Las Txotxonis' deitzen zen musika taldearen diskoaren produkzioa egin nuen. Bertan Blanca Ali, Txus Gutierrez eta nire arreba bera ere, Silvia San Miguel, ibili ziren. Rap doinua flamenkoarekin nahasten zuten neskak ziren hauek. Baina musikaz gain antzerki, zine eta literaturaren egarri zen taldea zen hura. Horren ostean hasi nintzen txalaparta abenturarekin.

Txalaparta egitasmoa 1991n hasi zen, ordutik hamabost urte pasa dira eta dagoeneko hiru disko kaleratu dituzu, 'Lezao', 'Ten' eta 'Dan-Txa'. Nerabezaroan alde egin zenuen Euskal Herritik baina zure musikan zure jaioterriaren sustraiak antzematen dira. Zergatik? Zein da Gasteizekin duzun erlazioa?



Bai, Madrilen bizi banaiz ere, beti nago Gasteiz oso. Nire jaioterriarekin dudak harremana sentimentala eta familiarra da, izan ere, nire familia guztia han bizi baita. Nire bizitzako lehenengo 15 urteak Gasteizen eman nituen eta orduko oroitzapenek nire bizitza markatu dute, nire aitona-amonek, gurasoek, txikitik entzuten nuen musikak, jaiek, tradizioek, hiriak eta herriko giroak, Lezao baserriko giroak... Hori dena barruan daramat eta hori izan zen, hain justu ere, 'Lezao' Txalapartako nire lehen diskoarekin kanporatu nuena. Antzinako euskal musika eta musika berriaren arteko nahasketaren egitasmoaren hasiera izan zen hura, eta horretan jarraitzen dut. 'Dan-Txa' azken diskoan samba eta trans erritmoak, besteak beste, txalaparta doinuekin bateratzen dira, baita akordeoiaren soinuarekin ere. Ikerketa egitasmoa dugu hau.

TTUKUNAK, SARA E

“Ttukun garenez,

Sara eta Maika ahizpek txikitatik ezagutzen dute Tomas San Miguelen musika. Biki gasteiztar hauek (egun 26 urte dituztela) Tomasek 'Lezao' eta 'Ten' diskoak egin zituenean nerabeak besterik ez baziren ere, belaunaldi aldeak ez du trabarik ekarri elkarren arteko lan musikala ekoizteko orduan. Ezinbesteko oreka eta sintonia ona begi-bistakoak baitira 'Dan-Txa' lanaren zuzenekoetan.

Nola sortu zenuen Ttukunak taldea?

Orain dela hamabi urte hasi ginen txalaparta ikasten. Handik denbora gutxira gure txalaparta maistrek, tradizioak dioenez, izena jarri ziguten: Ttukunak. Ttukun txalapartaren kolpea da eta gu, bikiak garenez, bi ttukun bezalakoak gara, hau da, berdinak eta desberdinak, beti elkarrekin eta beti elkarren beharra sentitzen.

Non ikasi zenuen txalaparta jotzen?

Zergatik txalaparta aukeratu musika tresna guztien artean?

Gasteizen ikasi genuen jotzen. Maikak eta biok hamabi urte genituen. Amak esan zigun ea folklore eskolara joan nahi genuen musika-tresnaren bat jotzen ikastera. Geuk, musika maite dugunez betidanik, baietz esan genien. Hara joan ginen eta txalaparta hautatu genuen. Musika-tresna hori bikientzat eginda dagoela dirudi eta.

Bikiak zarete, bikien arteko konexioa erabatekoa dela esan ohi da, txalaparta

A MAIKA GOMEZ

txalapartaren kolpea da eta gu, bikiak bi ttukun bezalakoak gara: Ttukunak”

jotzea, modu metaforikoan bada ere, bi lagunen arteko elkarrizketa da..., elkarren artean makilekin bezain ondo moldatzen al zarete eguneroko bizitzan?

Urte asko dira elkarrekin!! Oso ondo moldatzen gara denetarako. Maika Madrilen bizi da eta ni Gasteizen, baina denbora dezente pasatzen dugu elkarrekin. Denetarako elkarrekin gaude. Ez gara bakarrik ahizpak. Bikiak gara eta horrek izugarritzko garrantzi handia du.

Zuek Tomas San Miguelen musika txikitatik entzuten zenuten eta ondoren berarekin jotzen hasi. Nola gauzatu zen elkarlana? Zerikusia izan al zuen denak gasteiztarrak izateak?

Bere musika entzun dugu txikitatik eta orain berarekin jotzea plazer handia da, ohore bat. Tomas oso musikari ona da eta pertsona guztiei gustatzen zaie horrelako musikariekin jotzea. Tomas orain dela urte asko ezagutu genuen. Berak Gerlabeti bikotearekin 'Lezao' diskoa grabatu zuen eta guk Gerlabeti bikotearekin harreman polita genuen. Baina pertsonalki 'Ten' diskoa aurkeztu zuenean ezagutu genuen, Madrilen, duela zortzi urte.

Belaunaldi desberdinetakoak zareten arren, eszenatokian zuen arteko giro ona islatzen da eta publikoarengana erraz heltzen zarete. Zein da sekretua?

Musika sentimenduak dira eta hori bizi behar da. Gozatzen baldin baduzu sortzen den giroa oso polita izan daiteke. Elkarren arteko mirespena suma daiteke erraz eta, batez ere, lehen esandakoa: egiten dugun musikaz gozatzea.

Txalaparta tresna antzinakoa, tradizionala, folklorikoa da, baina hala ere, gaur egungo soinuekin erabat ondo uztartzen dena. Jotzeko modu berezia duzue zuek. Txalapartari



[arg.: kristof verschueren]

dagokionez dena asmatuta al dagoela pentsatzen al duzue?

Guk txalaparta tradizionala egiten dugu. Oso garrantzitsua da guretzat txalapartaren izatea ez galtzea. Hortaz, bai egurrak, bai harriak, bai burdinak ez daude afinatuta. Dena inprobisazioa eta elkarren arteko etengabeko komunikazioa da. Guk uste dugu txalapartak ez duela mugarik eta ez duela izango.

Tomasekin egindako 'Dan-Txa' lanaz gain, bestelako egitasmo independentierik ba al du Ttukunak bikoteak?

Kontzertu asko egiten ditugu bakarrik

txalapartarekin. Ttukunak-ek lan handia du baina sartuak gara beste bi proiektutan. Bata gure ametsa izan da betidanik, flamenko talde bat sortzea. Orain dela lau urte 'Palo Flamenco' taldea sortu genuen: *bailaor*, gitarrajole, perkusio-jotzailea eta *kantaor* bat, dena txalapartaren soinuaz (nola ez, txalapartan dena inprobisatua). Bestea jazz proiektu bat da: kubatar piano jotzaile Roberto Fonseca eta Cachaito kontrabaxu jole eta baterajolearekin; disko berri bat grabatzeaz gara•

cd-a

tüsüri

musika elektronikoa jorratzen duen oier iruretagoiena gaztearen proiektua
www.mundurak.net/tusuri

diskografia
>queriac. 2006-maiatza: columpio 0; unliberum arbitrium; esku latzez; negu hotzetako
>untitled single. 2005-azaroa: gavbeh; gudarosteak
>herdoila. 2004
>sei egun. 2003
>bildumak-hainbat artista: reconstruct iii (tüsüri, jan m. iversen, guignol dangereux, chefkirk, deadwood, tzesne, sound_00, cadmium dunkel...), 2005-abendua



liburua

'araba, bertso histori ezberdin bat'

egilea: ruben sanchez bakaikoa (zaragoza, 1975) | argitaletxea: arabera kultur taldea | orrialdeak: 175

arabako bertsoari zaren hastapenetatik gaur arteko ibilbidea jorratu du ruben sanchez bertsolari gasteiztarrak liburu honetan. horrela, arabako bertso eskola abiatu zuten bertsolarien iritziak eta pasadizuak bildu ditu, baita garaiko (80. hamarkada) prentsan agertzen ziren oharrek eta argazkiak ere. arabako bertsozaletasunak dituen "berezko berezitasunak" azpimarratu nahi izan ditu egileak: batetik, euskaldun berriek bertsolariaren hartutako pisua nabarmendu du; bestetik, arabarrek urte hauetan guztietan bertsoan ibiltzeko erakutsitako "ausardia" eta euren artean sortutako giro berezia.



zinea

Amando a Maradona

dokumentala | argentina - zelandak
berria | iraupena: 75 min. | urtea: 2005
| zuzendaria: javier m. vaquez

Zertan dira berdin Villa Fioritoko kale batean mutiltxo bat jolasten eta Napoleseko taberna baten jabea?

Zertan dira berdin 500 pertsona Gabonak ospatzen urriaren 30ean eta 25 futbolzale beraien tatuajeak erakusten?

Guztioak daude Maradona maitatzen. Diego berak bere bizitza kontatzen digu eta bertan bere jarraitzaileen pasioa erakusten digu.

Nápoles, Bartzelona, Kuba, Buenos Aires, Rio de Janeiro, Suiza eta Patagonian grabatuta, film honek Diegoren bizitzaren berri ematen digu bihotzean daraman jendearen bitartez.



MADRECHILLONA

[txabi arnal gil]

Behin batean amatxo haserretu zitzaion pinguino txikiari. Ama hain zegoen haserre ezen sekula ez entzundako oihurik zala-partatsuen egin baitzion txikitxoari. Horren eraginez, haurraren gorputz atalak munduan barrena sakabanatu ziren. Ondoren ama damutu zitzaion, gorputz atalak bilatzen eta batzen lagundu, eta esan zion: "barkatu".

Horixe da, hitz gutxitan, *Madrechillona* tituluko ipuinaren argumentua. Jutta Bauerek, hamaikagarrenez, umeen sentimenduen gaia era bikainean jorratzen du, esaldi laburrak idatziz eta irudi ezin adierazgarriagoak erabiliz.

Madrechillona haserrealdi batean zeharreko ibilaldi metaforiko bat dugu. Nahiz eta ama haserre egotearen arrazoia ez dakigun, bere oihuak pinguino txikiaren gorputz atalak hedatuko ditu, leku urrunetara eta ezberdinetara igorri. Jarraian, amak berak bere umearen zatiak bildu eta josi egingo ditu. Horra hor, beraz, barkamenaren metafora ederra; umeak, hala eta guztiz ere, amaren beharra duenaren metafora bikaina; amak beti barkatzen duelako segurtasunaren metafora zuzena.

Madrechillonak bakardadea hartzen du gaitzat batzuetan, laguntza eta laguntasuna beste batzuetan, maitasuna beti.

Madrechillona, paisaiak eta koloreak. *Madrechillona*, umeak eta umeen mundu "bakarra". *Madrechillona*, umearen eta amaren arteko maitasuna. *Madrechillona*, umearen eta amaren artekoa. *Madrechillona*, umea eta ama•

Madrechillona. Jutta Bauer. Loguez, 2004.



kanarietako bazter babestuetako batzuk

[www.gobcan.es]



ventejis. hierro



tablado. palma



orone. gomera



castroko euri-bidea. tenerife



acentejoko kostaldea. tenerife



fataga. kanaria handia



vallebron. fuerteventura



tenegüime. lanzarote



la geria. lanzarote

ERREZETA

MIHI-ARRAIN POUPIETEK, GARI-ZAINZURI, ONDDO ETA TXIRLEKIN

[gamarrako ostalaritza eskola]

> Lau lagunentzako OSAGAIK:

2 Mihiarrain
10 Gari-zainzuri
10 Txirla
onddo freskoak (100 gr.)
2 cl. esnegaina
Erremolatxa gorri ozpin-olioa
Arrain salda
Olio lodia
Gatza
Perrexilez konfitatutako olioa



Prestaketa

Aurre-prestaketak
Mihi-arraina garbitu eta azala kendu ondoren, lau xerratan utzi; hauek, kontu apur batekin zanpatu eta gazitu ondoren gorde.
Onddoak oliba oliotan konfitatu mantso-mantso, erabat bigundu arte.
Gari-zainzuri puntak, gatzez ondutako ur irakinetan egosi hiru bat minutuz.
Txirlak lurrinetan ireki, gehiegi lehortzen utzi gabe.

Poupietiek

40 gr. onddo, 2 txirla, 2 gari-zainzuri, eta 2 cl. nata, thermomix edo beste edozein xehatzeko makinatan ondo txikitu eta gatzez dastatu.

Erremolatxa gorri ozpin-olioa

Erremolatxa egosi (25 gr.), olio lodi eta jerez ozpin apur batekin ondo birrindu, eta iragazki batetik pasatu eta gatzez dastatu.

Plateraren antolaketa

Mihi-arrain xerrak zabaldu eta aurreko nahasketarekin gantzutu, eta ondoren xerrak biribildu eta zotz batekin itxi. Azkenik, olioz igurtzitako labe plaka batean utzi, eta 180 °C.tara erre 2-3 minutuz.
Bi poupiete jarri plater bakoitzeko, beraien barruan bina gari-zainzuri punta sartu, bina onddo zati eta txirlekin hornitu, eta amaitzeko, perrexilez konfitatutako olio eta erremolatxa gorri ozpin-olioaz apaindu.



MIKEL EGILUZ, bakarlaria. 'Garai hobeak' *“Beti egiazale izaten saiatzen naiz”*

Mikel Egiluz gasteiztarrak bere lehen diskoa kaleratu berri du, 'Garai hobeak'. Autoekoiztutako lanak bakarlariaren hitzak eta musika jasotzeaz gain, Koldo Quilchano, Unai Bolinaga, Imanol Martinez, Karlos Subijana, Amaia Egiluz eta Iñaki Cantonen kolaborazioekin jantzi da.

[josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Disko bat kaleratzea al zen musikan murgiltzen hasi zinenetik zure helmuga nagusia?

Ez, nire lehen ametsa abestiak konposatzen hasi nintzenean noizbait jendearen aurrean nire lana erakusteko aukera izatea zen, eta laster lortu nuen. Ez dut inoiz helburu bezala izan disko bat grabatzea, baina banekien denborarekin eta idazteko gogoaz galtzen ez banuen gauza polita litzatekeela halako proiektu batean sartzea, eta orain diskoa eskuetan izanda aurrerapauso handia eman dudala sentitu dut.

Zuk zeuk ekoiztutako diskoa da 'Garai hobeak', zergatik?

Batez ere salmenta prezioari begira. Argi nuen hasieratik diskoa guztien eskura egotea nahi nuela, lan on bat izatea eta eroslearentzat garestia ez izatea. Normalean diskoetxeek beraien arauak dituzte eta aurretik aipatutakoa arazoa izan zitekeen hasieran nituen asmoei begira.

Pentsatzen duzu autoekoizketaren bidez diskoetxeekin elkarlanean bezain arrakasta handia izan dezakezula?

Badakit diskoetxeak saiatzen direla ateratzen dituzten lanak promozionatzen, eta hori ziur asko niri dagokit egitea, baina denborarekin eta jendearen laguntzaz espero dut pixkanaka nire lana Euskal Herri osora heltzea. Gero entzuleek baloratuko dute. Aste hauetan komunikabide asko (egunkariak, aldizkariak, irriatiak, telebistak) interesatu dira proiektu

honengatik eta hori mugitzen hasteko laguntza ezin hobea da. Ez nuen espero hainbeste interesik, eta orain ikusita poz handia ematen dit.

Mila disko plazaratu ditut, momentuz Arabatik gehienbat mugitzen hasi direnak, eta jendearen harrera oso ona izaten ari da, nire iritziz. Denborarekin argiago ikusiko da salmentak onak diren edo ez.

Diskoak Gasteizko zenbait musikari beterano zein gazteren kolaborazioak batzen ditu. Zer-nolako babes eman dizu musikari esperientziadunekin aritzeak?

Ezagutzen dudan jendea, batzuekin besteekin baino adiskidetasun hurbilagoa dudana baina azken finean laguntzeko prest egon direnak, da eskertzekoa. Diskoan pentsatzean ez nuen batere argi zein musikari nahi nituen nirekin aritzeko. Abestien aukeraketa egin ostean pentsatu nuen zein instrumentuk indartu ahal zuten abesti bakoitza, eta horrek azkenean eraman ninduen parte hartu duten zañpi kolabora-tzaileengana. Nagusiki abestiak prestatu eta grabatzeko mementoan musikari onekin aritzeak denbora asko errazten dizu, eta hortaz, lana erraztu didate.

Diskoa ateratzeko orduan zailtasunik aurkitu al zenuen?

Ez, bat ere ez. Autoekoiztutako diskoa izanik, guztia aurrera eramateko diru kopuru bat behar da, hor egon dira gurasoak laguntzeko.

Eta laguntzarik edo abantailarik jaso al duzu?

Laguntza nire inguruan izan diren lagun

MIKEL EGUILUZ
DISKO BERRIA | GARAI HOBEAK



guztiegandik jaso dut, emandako animoek hau guztia ilusio handiagorekin hartzera eraman baininduten.

Gasteiz aukeratu zenuen diskoaren aurkezpen kontzertua eskaintzeko toki, arrazoi berezirik?

Bai, hasieratik amets honetan sinetsi duten lagun asko Gasteizkoak dira, eta akats bat izango zen beraiei ez eskaintzea aurrenekoz lan berezi hau.

Aurkezpen kontzertuaren erantzuna zoragarria izan zen. Parral taberna leporaino eta, diskoak astebete bakarrik kalean zeraman arren, jendea jada nire hitzak abesten aritu zen, asko hunkitu ninduen hori ikusteak, zaila da hitzekin adieraztea memento hori... ederra.

Kantautoretzat duzu zure burua, ahotsa eta gitarra dira zure musikaren tresna nagusiak. Lanbide honek arima biluztea al dakar abestietan? Horrela suma dezakezu Mikel Egiluz bere lehen diskoan?

Askotan bai. Abesti bat idazten dudanean saiatzen naiz nire buruan ditudan pentsaerak eta sentimenak paperean islatzen, kasu batzuetan askori aitortzea kostako litzazkiekeen hitzak askatuz. Beti egiazale izaten saiatzen naiz.

Disko hau azken urteetan idatziriko abesti guztien arteko hautaketa antzeko bat da eta bertako zenbait abesti nire bizitzan zehar igarotako une berezien zatitxoak dira.



Maitasun kantuak egon badaude behintzat, ezta?

Egia, maitasuna oso barne egon da abestiak idazteko orduan. Oroipen bitxiak ditugunean nire ustez errazago ateratzen zaizkigu hitzak, mila irudi ditugu bihotzean eta informazio asko atera daiteke haietatik. Pena ematen didana, edozein talde edo

bakarlariren maitasun abestiak aztertzean ospetsuenak amaiera tristeza duten abestiak direla ikustea da. Hain zaila al da zoriontsu bukatzen diren istorioak aurkitzea? Zergatik erakartzen gaituzte hainbeste hitz tristeez? Sarritan egiten diot nire buruari galdera hori. **Zer dauka berezia Mikel Egiluzen lanak?**

Ez da galdera erraza erantzuteko. Nire ustez galdera hau entzuleek erantzun beharko lukete. Ahotsak, adibidez, orokorrean garrantzi handia du edozein musikarientzat, bakoitzak berea du, eta hori nirekin ere agian aurki daiteke. Bestetik, jorrotutako gaiak, hitzen indarra,... zaila da jakitea.

Musika lanbide bilakatzea nahiko zenuke?

Nire kasuan badakit musikari gisa bizitzea izugarrizko lorpena litzatekeela, baina gaur egun gutxi batzuek dute aukera hori, horregatik zaletasun berezi baten modura hartzen dut.

Uste dut buru ona dudala bai musika lantzeko bai hitzak idazteko orduan. Batzuetan gitarrarekin nahiko nukeen trebetasuna ez izateak abestiak konposatzean mugatzen nauela ikusten dut, horregatik hobetzen saiatzen jarraituko dut.

Orain Gestio Informatika Ingeniaritzako proiektua amaitzen nabil, eta horri ere ez diot arreta galdu behar.

'Garai hobeak' izenburu, akaso ere izango dira etorkizun hurbilean Mikelentzat?

Oraindik nire ilusio guztiak bete ez ditudan arren, aste hauetan jendeak emandako babesak etorkizun baikor batean pentsatzera eraman nau, eta bidean diren beste ilusio zoragarriak laster lortzea espero dut. Bitartean orain dudana gozatzen jarraituko dut.

Zeintzuk dira zure erreferente musikalak?

Euskal bakarlariak entzuten hasi nintzenean Mikel Markez oso nuen gustuko, bere ahozsa berezia zen. Beste batzuk ere izan dira asko jarraitu ditudanak, Anje Duhalde adibidez; azken urteetan Bob Dylan, Tom Petty eta beste zenbait bakarlariren musika ere belarrietatik gertu izan dut. Musikari desberdinak entzuteak bitxikeriak ikasten laguntzen du, baina nire abestiak idazteko orduan nire estilo berezkoa bilatzen saiatzen naiz.

Norbaitekin kolaboratzeko gogo berezirik?

Niretzat artista diren asko dira Euskal Herrian, eta adibidez, ibilbide luzea daraman Anje Duhalderekin noizbait kolaboratzea agian bai ilusioa egingo lidakeela.

Bidaiatzeko prest...

BIDAIATEKAN!

Uda heldu da eta honekin bidaiatzeko garaia. Herrialde, kultura eta ohitura berriak ezagutzeko sasoia, alegia. Izan ere, bisitatuko dugun lekuaren informazioa bilatzeko ordua. Planoak, garraiabideak, ostatuak, bisitatzeko toki interesgarriak, ibilaldiak edo jateko lekuak. Hau guztia eta askoz gehiago Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan kokatzen den Bidaiatekan aurki dezakezu.



[saioa fdz de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

Bidaiateka bidaiatzale guztientzako doako udal zerbitzua dugu. Bidaien txoko hau Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoaren behin betiko saila bada ere, urtero uda heldzean eta bere erabilera suspertzeko asmoz, arreta berezia eskaintzen diote, besteak beste, ordutegia zabalduz (uztailaren 28ra bitartera 20:30era arte zabalik dago) eta ekintza bereziak antolatuz. Bidaiatekako arduradun Inma Solaunek esan bezala, "edozein motatako bidaiari buruzko informazioa eta aholkularitza emateko

jaio zen gune hau eta bertan bidaiariak euren bidaiak prestatzeko aukera dute, hala nola, egingo duten ibilbidea zehaztu, garraiabide egokia aukeratu edo ostatu bilatu".

Horretarako, bidaien txoko honek informazio eta euskarri anitz jartzen ditu erabiltzailearen esku, esaterako, 325 karpeta, 5 kontinenteetako edozein herrialderi, eskualderi eta herriri buruzko informazioa gordetzen dutenak. Horrez gain, karpeta monografikoak ere aurki daitezke, zehazki, Done Jakue edota Zilarraren bidearen inguruko informazioa, kirol eta abentura ekintzak, edo aldi baterako lana nahiz hizkuntza ikastaroak atzerrian gordetzen

dutenak.

Baina ez da horretara mugatzen. Bidaiatekak ere liburutegia eta hemerroteka zabala eskaintzen du. Batetik, 2.000 liburu baino gehiago ditu; bidaiatzeko erabilgarriak diren giden artean, adibidez, kanpin gidak edo herrialde desberdinen gidak.

Bestetik, asko dira kontsulta daitezkeen aldizkari espezializatuak ere; Traveler, National Geographic, Altair, Rutas del Mundo edo Euskal Herria argitalpenak.

BESTELAKO EKINTZAK

Aldi berean, zerbitzu honek kontsultarako ordenagailu bi jartzen ditu bidaiariaren



bitxiak / zilarra / osagarriak

Prezio ezin hobeak!

Originaltasuna!

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**

**EAJ
PNV**

esku, non turismoarekin harreman zuzena duten hainbat eta hainbat webgune aztertu daitezkeen. Gainera, bidaiariarentzat interesgarri suerta daitezkeen informazio zehatza biltzen dituzten programazioak eta liburuskak ere badaude ikusgai. Horrez gain, honako agiri hauek lor daitezke bertan, hala nola, aterpetxekideen agiria (REAJ), ikasleen nazioarteko agiria (ISIC), irakasleen nazioarteko agiria (ITIC) edo nazioarteko gazte agiria (IYTC).

Azkenik, aurten Bidaiatekak lehiaketa bat jarri du abian eta edonori www.vitoria-gasteiz.org/viajeteca web orrian bere bidaiaren berri emateko gonbidapena luzatzen dio. Honen bidez, bidaiariak bisitatu dituen lekuak gomenda ditzake, bere bidaiaren nondik norakoak azalduz eta bere argazkiak erakutsiz. Bide batez ere, etorkizuneko bidaia informazio erabilgarriaz jantzen da eta gainera, bidaiatzeko kideak topatzeko aukera ere badago. Finean, gune hau informazioa trukatzeko bide bilakatzea dute helburu.

Txoko honetan euren esperientziak kontatzen dituztenek sari interesgarriak irabazteko aukera izango dute.

EDONORI ZUZENDUA

Bidaiateka gazteei zuzendutako zerbitzua da, halarik ere, ez diote inori atek ixten eta edonor hurbil daiteke informazio eske. Are gehiago, Inmak esan bezala, "urtean zehar batez ere kontsulta gehien egiten dituztenak 30 urtetik gorakoak izan ohi dira".



Halarik ere, uda heldu ahala, erabiltzaileen adina jaisten dela aitortu du eta "gero eta gehiago dira bertaratzen diren gazteak, batez ere, Inter-rail edo antzeko bidaiek prestatzera".

Berez, bi dira bidaien txoko honekin lortu nahi dituzten helburuak: batetik, gazteen garapen pertsonala suspertzea, oporraldian euren mugikortasuna (hizkuntza ikastaroak eta aldi baterako lana atzerrian, au-pair, boluntariotza...) ahalbidetzen duen informazioa eta aholkuak eskainiz. Bestetik, berriz, kultur aniztasunaren trukea ahalbidetzea.

Bidaien txoko honi esker, hortaz, bidaiatzea, eta ondorioz, partekatzea gero eta errazago dugu.

bidaiateka

>kokapena:

gazteen argibideetarako udal bulegoa (plaza berria 1, behea)

>ordutegia:

>>ekainaren 12tik uztailaren 28ra, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara / 17:30etik 20:30era (ostiral arratsaldez itxita)

>>uztailaren 31tik irailaren 11ra, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara

>>urtean zehar: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 19:00etara (ostiral arratsaldez itxita)



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

LEHIAKETAK & SARIKETAK

ernestina champourcin & ignacio aldecoa & becerro de bengoa lehiaketak

>ernestina champourcin XVII. poesia lehiaketa
>ignacio aldecoa XXXV. ipuin lehiaketa
>becerro de bengoa XVIII. saiakera lehiaketa lanak aurkezteko epea: irailak 8
informazioa: arabako foru aldundia-kultura



pedro de atarrabia 18. literatura sari-keta

kontakizun laburren sariketa da. saria 2.500 euro izango dira modalitate bakoitzean. gai librea. idazlanak aurkezteko epea: irailak 15.
antolatzen du: atarrabiako udaleko euskara zerbitzua / ccvillava@cin.es

euskal herriko III. graffiti lehiaketa

oinarriak: www.topagunea.org / www.tolosa750.net

finala: irailaren 16an, tolosan



ERAKUSKETAK

montehermoso kulturunean

bestelako marrazkiak - itxaso mendiluze
vtv-gli
uztailaren 9ra arte



ez da ohiko marrazki-erakusketa bat, marrazki diziplinaren joera desberdinak erakustean datza. marrazkiarekin eta horren euskarriekin duten loturagatik eta horiek aztertzeke duten gaitasunagatik aukeratuak izan dira erakusketa osatzen duten 6 artistak: manu arregui, bene bergado, blami, abigail lazkoz, edu lopez, m eta miriam ocariz. teknika eta prozesu ezberdinak bateratzen ditu emaitzak, hau da, moda, bideo, komikia, etab.

ura eta biluztasuna

uztailak 20-urriak 1
garai bateko ur biltegi

expoart

inaugurazioa: uztailak 7 > hiri olerki saioa. falerina lorategian, 18:00etatik aurrera / erakusketa: uztailak 7-30, beheko solairuan

artium museoa

andres serrano: 'hatza zaurian'

urriaren 8ra arte
argazkien edertasunaren bidez gizartearen tabuak uxatzen ditu andres serrano artista estatubatuar (new york, 1950) polemikoak; gizartearen kezak oinarri dituzten 60 argazki bildu ditu



ZINEA

azti ikaslea (euskaraz)

vital araban zehar
uztailak 14 (doan)
zaldunduondoko plazan

le protecteur

patxi basaberen zuzendaritzapean, luis martinez de zestafek ekoiztua eta honako aktoreen kolaborazioarekin, karra elejalde, gorka aginagalde, txema blasco, manu elizondo eta ramon barea, besteak beste, uztailaren 16tik 21era bitartera 'le protecteur' film laburra filmatuko da gasteizen.

MUSIKA

ostegunak zuzenean

uztailetik irailera bitartera: musika, magia, antzerkia...ostegunero, 20:00etan, falerina lorategian (gasteizko montehermoso kulturunean)

gasteiz big band

vital araban zehar
20:00etan (doan)
uztailak 7. aramaioko kultur etxean
uztailak 21. harresi aretoan,
gasteiztar musikariek osatu jazz orkestra dugu honakoa. 1996an jaio zen luis aramburu big band izenez. swinga oinarri hartuta, erreperitorio eklektikoa eskaintzen dute. 70 urte baino gehiago duen musikari gaurkotasuna jartzendion proposamena. jai giroko esperientzia bat, didaktikoa eta parte-hartzailea. hau eta gehiago dugu gasteiz big band.
www.gasteizbigband.com



anje duhalde, buitraker & gualtxo

uztailak 18, 12:00etan, gogepiko bengolarra parkean (zigoitia-araba)

argi beltz

tirri tarra + orfeoi donostiarrak, et incarnatus

uztailak 28, gasteizko plaza berrian, 22:30ean (doan)


tirri tarrako 23 musikariek batera donostiako orfeoa eta et incarnatus hari orkestra izango dira, eszenaratzeko ikusgarria eta zuzeneko txundigarri eta zirraraz betea eskaintzeko.



euskal herria zuzenean

11. aldiz kultur egitarau oparoa zuberako idauze-mendin

ekainak 30 - uztailak 2
www.festival-ehz.com



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

JAIK GASTEIZKO AUZOETAN

aranbizkarra auzoko jaiak

>ekainak 30: 20:30ean malabareak txosna gunean / 21:30ean triki-poteoa / jarraian talde maketeroen kontzertua
 >uztailak 1: 14:00etan herri bazkaria txosnetan / 16:00etan: mus txapelketa auzoko hainbat tabernatan / gauez kontzertua; banda bassotti + mossin nagant + al infierno en goitibera



banda bassotti

adurtza auzoko jaiak

uztailak 13
 >17:30ean: gure aiton-amonentzako jai. adurtza g.e. uztailak 14
 >18:00etan: gaztelu puzgarria txikientzat. adurtzako parkean
 >20:00etan: kalejira erraldoi eta buruhandiek. auzoko kaleetan zehar
 >21:00etan: adurtziñeren jaitsiera eta suziarik. heraklio fourmier kalean
 >00:30ean: dantzaldia: koxkor taldea. Txosnetan, adurtza kalean
 uztailak 15
 12:30ean: euskal dantzarien ekitaldia auzoko kaleetan zehar, 'adurtza dantza taldea' eta portugaleteko 'berri-tasuna' taldeen eskutik
 15:00etan: gazte bazkaria txosnetan (aurretik apuntatu behar da olarimendi kultur elkartearen)
 17:00etan: kalejira, buruhandiak, erraldoiak eta euskal dantzak. adurtza kalean
 18:30ean: bolo txapelketa. hegoaldeko bolatokian, bertan apuntatu. sari izugarriak
 19:00etan: kutxo eta blas pailazoak. adurtza kalean
 23:00etan: rock kontzertua. txosnetan: kuraia / the soulbreaker company / rockaina
 uztailak 16
 11:30ean. pilota txapelketa eta putxe herrikoia. ignacio deuna eskolako frontoian. antolat: adurtza pilota taldea



kuraia

13:00ean: herri kirol jaialdia. adurtza kalean
 15:00etan: marmitako herrikoia. adurtza kalean
 17:00etan: mus txapelketaren final aurrekoa eta finala. adurtza kalean
 18:00etan: erromeria adurtza kalean, adurtza dantza taldeko txistulari bandarekin
 20:00etan: suziri jaurtiketa eta bukaerako traka

adi beste auzoetako jaiak:

txukun-lakua
 ariznabarra
 san kristobal

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNAK EUSKARAZ (GASTEIZ) *sarrera doan

>uztailak 3: la banda el pilar g.e.-ko plaza
 >uztailak 4: yarleku, 'númenes' sefarad plazan, judimendi
 >uztailak 6: kike blas eta jonas, 'hau desastre, zenbat traste!' ariznabarra g.e.-aren ondoan
 >uztailak 10: iluna, 'harrikoskor planeta' zuberoka plazan (iparralde g.e.)
 >uztailak 11: erizen magia hegoalde g.e.-ko plazan
 >uztailak 12: sambhu teatro, 'kataclown' landatxo kiroldegian
 >uztailak 13: adur antzerkia, 'kuko, truko eta bolenwaider: oporretan' arriaga g.e.-ko parkean



alboka eguna gogoan


joan den ekainaren 12an otazun izan zen arabako 5. albokari-topaketa. giro ederrean eskualde guztietatik etorritako albokariak bildu ziren eta egun ezin hobea pasarazi ziguten bertan izan ginen zaletu guztioi. ospakizun horretan tradizio bihurtu den bezala, albokariak ez ezik gure kulturaren adierazle diren beste hainbat musika tresnaren jotzaileak ere gurekin izan genituen, hala nola, txistulariak, biolinjoleak, perkusiojoleak, trikitilariak, txalapartariak... goizeko 11:00etan hasiera eman zitzaion jaiari herriko kaleak animatu zituen kalejira batekin; gazta, sagardo eta arabar errioxako ardoarekin nekea arinduz gero, talde edota bakarlarri desberdinekin eskainitako emanaldiaz gozatzeko aukera izan genuen. eguraldiak lagun, eguerdi partean albokariak zein bisitariak geltoki zaharrera abiatu ginen otazuko bizikideek prestaturiko babarrun gozoak dastatzera. han bazkaloste luze eta atsegina izan genuen edonon eta bat-batean sortzen ziren musika eta kantuekin ziprztindurik. zazpi eta erdietan berriro plazara itzuli ginen eta han osesek eta mariak urtero bezala oparituriko hiru alboken zozketa 'tongo! tongo!' oihuen artean izan genuen. jakina! inbidiak jota geunden ez zorionduen uluak ziren horiek! beharbada argitu beharra dago oses eta maria -jai honen bultzatzaile nagusiak- oso ezagunak direla euskal herriko albokari guztientzat, haien albokak egin eta konpontzen dituztelako; beren tailerra otazun bertan kokaturik dago, toki bitxia eta interesgarria... azkenik, eta egun zoragarri horri amaiera emateko, arazo teknikoak zirela eta berandu baina seguru, ibon koteronen eta kukumaren musikarekin dantzatzeko parada izan genuen gaueko ordu txikiak arte. jai benetan aparta eta oso gomendagarria!

otazuar zaletu bat



GEU laguntzailea: **Obra Social**
Caja Vital **Vital Kutxa**
 Gizarte-Ekintza

[cristina fernandez blanco]



HISTORIAZUTABEA

IRUÑAKO EUSKAL IDAZKLINEZ...

[erlantz urtasun]



Kaixo, irakurle. Ai ene, a zer-nolako kristoa antolatu zen ekainaren hasieran Langraiz aldeko Iruña herriko idazkun, inskripzio batzuk zirela medio. Gainerat, antza, harri horietan duela urte mordoia idatzi zuten, III. mendekoak edo omen baitziren. Hitz batez, deitzen ohi dugun erromatar garaikoak, euskaldunok Erroma hiriburu kolonizatzaile moduan pairatu genuen denbora luze bezain latz hartako aztarnak, alegia.

Kontxo, ni historialaria naiz, eta, sinetsiez adazue, ez baita txantxa, 'Gran Hermano', 'El conquistador del fin del mundo' eta horrelako astakeriak ikusi beharrean erromatar aldiari buruzko ehun liburu baino gehiago irakurri dut. Adibidez, idazkun, inskripzioen gainean argitaratu ohi den oro. Baita bertze ehundaka batzuk, aukeratuak, betiere, munduko historiaz edota oraingo Euskal Herriaz hobeki jabetzeko. Artikuluak, erreportaiak...

Bai, aitortzen dut, horren arraroa naiz. Baina, eta hemen dago kokka, horregatik zur eta lur geratu nintzen albistea aditu nuenean: jeroglifikoak, "calvario", euskara... Aspaldi ezagutu nuen Eliseo Gil arkeologoa, biltzar batean, eta merezi du aurkitu duena, langile amorratua zela iruditai baitzizaidan. Biltzar erraldoi hartan, baina, dozenaka hitzaldi lekuko, euskaraz aritu zen bakarra, ezetz asmatu...

Bada, kazetariak: "Lehen ueste zuten Nafarroa zela euskararen seaska, baina orain garbi dago Araba dela". Lehenik eta, Nafarroaz edo Arabaz hitz egitea duela 2000 urteko aferetan ez da sobera zuzena, bigarrenik egungo Nafarroa Garaian, oraindik ere, Araban baino higitzez aztarna gehiago dago, zientifikoki errana, jakina, pasiorik gabe, ez da "alavés" edo "osasuna", dagoena baizik. Eta, hirugarrenik, norbaitek garai hartako euskal idazkunez zerbait jakin nahi izanez gero, nazio mailan ginena ikasteko, hobe du garai hartako "Iparaldea" aztartzea, Bordele eta Andorra artean kokatzen ziren hirietan ehundaka euskal idazkun baitugu, eta ez gaurko "Hegoalde"ko apur hauek, Langraizkoak garrantzi handi-handikoak izan arren.

Honela zioten egunkari batean: "era la principal ciudad vasca en el siglo III". Eta, bertze batean, "el material en lengua vasca más antiguo conocido". Eta aipatu egin dena kristautasunaren hedabideaz, berdin. Dirudenez, hor konpon egungo Calahorra eta bertze... Bai, zera, hori ezta pentsatu ere, ezta turismoaren bultzatzeko ere. Zientzian, eta Euskal Herrian, norberari berea. Kriston aurkikuntza dela ezin ukatu, hori bai, mundiala, baina Euskal Herria ez da Langraiz soilik, ez Bilboko Portua, ez Gipuzkoako sagardotegiak, ez sanferminak. Zorionak, beraz, benetako Arabari, betidanik ueste izan dugun bezala, ezin ederragoa baitzara!*

"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (VI)

Oraingoan, bistan da, lehenagokoari jarraitu nahi diogu, zenbait eskaera medio (bai, zurea ere bai, Koldo), hain zuten ere Arabako herri izenak ea historian zehar aldatu ote diren erantzuteko. Eta, bereziki, hil honetan erraza dirudiena, argi ematen duena, litekeena zer zail bilakatzen ahal den ikus dezagun.

Bitxia gero, erraterako, Uda-Trebiñu eskualdeko "Ochate" toki, aspaldi herri basamortu bihurtu zena. Duela 1000 urteko paperetan "Gogate" zela dirudi. Beranduxeago, XIII. mendean, "Chochar", ai ene, XVII. mendean "Ochayte" eta XVIII. mendean "Ogate", abizena eta guzi. Baietz sinpleago irudi hasiera batean, begirada batez "otsoa" eta "ate" edo, ezta? Ba, historiaren korapiloetan, dexente nahaspilatzen zaigu...

Berdintu "Olabezar" tokiarekin, XI. mendearen amaieran "Olahuzezahar" zena, geroxeago "Olave-zahar" idatzi zuten arren. Antzekoa, ados, baina euskaldunondako berdin-berdina?

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]



BURUKETAK

4
KOADERNOA

Hamarrendun eragiketak lau eragiketekin

- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

ARGIBIDEAK ETA ESKARIAK.

ekar

BURUKETAK

5
KOADERNOA

BATUKETAK, KENKETAK, BIDERKETAK, ZATIKETAK, BERREDURAK EDO POTENTZIAK, ZATIPIAK EDO FRAKZIOAK ETA EHUNEKOAK EDO PORTZENTAJEAK

